

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN 2024ko ABENDUAREN 10eko BILKURA AKTA LABURRA

Presente ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Corinne Othatcegy, Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Joana Lacarra, Jean-Pierre Gogny, François Hayet, Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Jean-Jacques Lassus, Carmen Gonzalez, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Jean-Jacques Lassus-ek Christian Devèze-ri; Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Despéries-ri.

– Herri kontseilari edo biltzarkide berrien leku hartzea.

Nicole Amestoy, Véronique Cadepond Larronde eta Maud Gastigard andereek beren kargua utzi eta gero, zeinak Auzapezak gogotik eskertzen baititu herriaren alde egin lanarentzat, Auzapezak Joana Lacarra, Jean-Pierre Gogny, eta François Hayet instalatu ditu kargua utzi dutenen ordezteko.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdegin du nork hartu dituen aitzinekoen delegazioak.

Auzapezak delegazioen berri eman du: Jean-Pierre Gogny merkatu eta deialdiez arduratuko da, Didier Irastorza segurtasunaz arduratuko da jendarmeria eta suhiltzaileekin harremanean, eta Éliane Aizpuruk bere gain hartuko ditu segurtasun komisioak.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Presente ziren kideek aho batez izendatu dute Joana Lacarra anderea saioko idazkari izateko.

Solasgaietan sartu aitzin, Auzapezak Arnagako zuzendari berria den Dudezert andereari proposatu dio bere burua aurkez dezan.

Stéphanie Dudezert anderea jatorriz Euskal Herrikoa da eta zientzia politikoetan eta artearen historian egin ibilbidea azaldu du. 22 urtez Lyon Fourvière-ko museo galo-erromatarrean aritu da eta orain aukera izan du Euskal Herrira itzultzeko Arnaga etxearen zuzentzeko. Irailaren 2an postua harturik, datozen bost urteetarako zientzia eta kultur proiektua osatzen ari da, museoaren hedadura eta bertako errotzea indartzeko. Herriko etxeak eskaini dion harrera beroa eskertu du eta bere ardura berrien baitan prestutasun osoa agertu du herriaren ordezkartzarekin elkarlanean aritzeko.

Auzapezak eskertu du eta jadanik poztasuna adierazi du haren izendapenagatik. Espero du, Frantziako Lyon hirian izan duen karrera distiratsua ondotik ez dela damutuko Kanbora itzuli izanaz. Seguramena du Arnaga etxeak haren adituriaren onurak izanen dituela.

– Solasgaiak:

001 – 2024ko uztailaren 26ko Herri Biltzarraren aktaren onespena.....	3
002 – Auzapezak, Herri Biltzarraren delegazioz hartu erabakien komunikazioa.	3
003 – Bide baten izendapena.	3
004 – Bide izen baten kentzea.	4
005 – Assantzaborda 2 etxe multzoa: bideak herriko bideen zerrendan sartzea eta sailkatzea.	5
006 – Olhako bidearen zabaltzea: lur-sailen eskuratzea erregularitza eta eremu publikora pasatzea.5	
007 – Micro-Folie dispositiboaren ezartzea: proiektuaren balioespena.....	6
008 – Lehen mailako eskolako jolasgunean natura txertatzea: proiektuaren balioespena.....	8
009 – Euskal Elkargoa: lurralde hitzarmen globalen lankidetzako funtzioaren antolatze zerbizu amankomunerako bazkidetza hitzarmena.	9
010 – Euskal Elkargoa: Ipar Euskal Herriko GIS zerbitzu bateraturako (Geografia Informazio Sistema) bazkidetza hitzarmena.....	11
011 – IEKA-ren (Ibilgailu Elektrikoen Karga Azpiegitura) eskumena TE64-ri ematea.	13
012 – SPL Pays Basque Aménagement: kapital sozialaren emendatzeko onespena.....	18
013 – AUDAP: laguntza hitzarmena.	22
014 – Turismo Bulegoa: 1. kategoriako sailkapenaren eraberritzea.....	25
015 – Eссор Cycliste Basque lasterketa: 2025eko hitzarmena.....	26
016 – Errobi kolegioa: dirulaguntza baten isurtzea.	27
017-A – Hondamendi naturala pairatu duen ETSAUT herriari diru laguntza.....	27
017-B – Hondamendi naturala pairatu duen LETUR herriari diru laguntza.....	28
018-A – Langileria: elektrikari enpleguaren moldatzea.	29
018-B – Langileria: finantza-arduradun enpleguaren moldatzea.....	30
018-C – Langileria: komunikazio arduradun eta idazkaritza orokorreko enpleguaren moldatzea.	31
019 – Langileria: kontratupekoen kontratatzea.	32
020 – Euskal Elkargoa: ur edangarria eta senamenduari buruzko 2023 RPQS txostena.....	33
021 – Euskla Elkargoa: hondakinen kudeaketari buruzko 2023 RPQS txostena.	37
022-A – 2025eko urtarrilaren 1etik goiti aplikagarriak izanen diren etxaldeetako mozkinen merkaturako leku eskubideen salneurriak.....	41
022-B – T2025eko urtarrilaren 1 etik aplikagarriak izanen diren Bixkotx Bestako erakusketarientzako salneurriak.....	42
022-C – 2025eko urtarrialren 1 etik goiti aplikagarriak izanen diren «Arnagako ikuskizunen» salneurriak.....	42
022-D – 2025eko urtarrialren 1 etik goiti aplikagarriak izanen diren gelen eta materialaren alokatzeko salneurriak.....	43
022-E – 2025eko urtarrialren 1 etik goiti aplikagarriak izanen diren autokarabana gunearen salneurriak.....	45
023 – Programa Baimen eta Ordainketa Kredituen (PB/OK - AP/CP) eguneratzea.	45
024 – Aurrekontu nagusia: 1. erabaki aldatzailea.....	50
025 – Inbertsio gastuen kredituak antizipazioz irekitzea.....	54

001 – 2024ko uztailaren 26ko Herri Biltzarraren aktaren onespena.

ERABAKIAK:

2024ko uztailaren 26ko saioaren akta Herri Biltzarraren bozkara eman da.

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU 2024ko abenduaren 26ko Herri Biltzarraren Akta.

002 – Auzapezak, Herri Biltzarraren delegazioz hartu erabakien komunikazioa.

003 – Bide baten izendapena.

ERABAKIAK:

Magis jaunak, auzapezordea, adierazi du Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-30 artikulua Herri Biltzarra behartzen duela errepide eta leku publikoei, baita zirkulazioari irekiak diren bide pribatuei izenak ematera.

Horren xedea da segurtasuna hobetzea (sorospen zerbitzuak bertara heltzeko) eta beste zerbitzuen eraginkortasuna hobetzea (posta, sare hedatzaileak, banaketak, pertsonentzako zerbitzuak...).

Kode berak dio Herriak bideen izenak, etxe eta bestelako eraikinen zenbakiak eskura izan behar dituela, frantses estatuaren eta beharra duten eragileek (Posta, estatistika zerbitzua, ikerketa ekonomikoak,...), Frantziako Publikoaren eta Administrazioaren arteko Harremanen Kodeko L.321-4. artikulua erreferentziazko datuok eskura izan behar direla adierazten duen bezala.

Ikusirik Herriko Kontseiluaren 2023ko abenduaren 12ko horri buruzko erabakia,

Ikusirik, hunkituak diren jabeen onespena,

Kontuan izanik, Lore Saltzaileen karrikan hasi eta jabetza pribatu batzuetan, hala nola zurgindegia bat, bukatzen den bidea izendatu behar dela,

Proposatzen du bide horri «chemin de la Menuiserie – Zurgindegiko bidea» izendapena ematea.

Magis jaunaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU Lore Saltzaileen karrikan hasi eta jabetza pribatu batzuetan, hala nola zurgindegia bat, bukatzen den bidea « chemin de la Menuiserie – Zurgindegiko bidea » izendatuko dela.

AGINDU DIO Auzapezari behar diren izapide guztiak egitea eta besteak beste herriko bideen plano eta taula eguneratzea.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari izendapen berri horren ezartzeko izapide guztien egiteko (izendapen plaka erostea eta ezartzea,...).

HITZ HARTZEAK:

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du noiz ezarriko diren karriketako plakak eta ea biztanleek berek ezar ditzaketenez beren etxeke zenbakiak.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du erroldatzea bukatua dela, eta 790 zenbaki eta 400 izen plaka eskatzekotan direla. Horretarako deialdia 2025eko urtarrilean aurreikusia da eta plaken kokapena uda aitzin. Etxe zenbakiak lehentasunez ezarriko dira zenbaki berria duten etxeetan. Beste kasuetan zenbakiak biztanleen esku ezarriko dira.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdegin du ea bere helbide berria komunikatzen has daitekeenez, berari zuzendutako gutunak usu gibelera igorriak baitira helbide arazoengatik.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak baieztatu du helbideak onetsi direla eta Helbideratzeen Banku Nazional frantsesera jakinarazi zaizkiola. Orduz geroztik, frantses estatuaren zerbitzuentzat helbide berriak dira indarrean, nahiz eta GPSak ez baitezpada eguneratuak izan.

004 – Bide izen baten kentzea.

ERABAKIA:

Magis jaunak, ordea, adierazi du Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-30 artikulua Herri Biltzarra behartzen duela errepide eta leku publikoetara, baita zirkulazioari irekiak diren bide pribatuei izenak ematea.

Horren xedea da segurtasuna hobetzea (sorospen zerbitzuak bertara heltzeko) eta beste zerbitzuen eraginkortasuna hobetzea (posta, sare hedatzaileak, banaketak, pertsonentzako zerbitzuak...).

Kode berak dio Herriak bideen izenak, etxe eta bestelako eraikinen zenbakiak eskura izan behar dituela, frantses estatuaren eta beharra duten eragileek (Posta, estatistika zerbitzua, ikerketa ekonomikoak,...), Frantziako Publikoaren eta Administrazioaren arteko Harremanen Kodeko L.321-4 artikulua erreferentziazko datuok eskura izan behar direla adierazten duen bezala.

Ikusirik Herri Kontseiluaren 2023ko abenduaren 12ko horri buruzko erabakia,

Kontuan izanik, gaur egun Errobi ibarraren gaineko eta « Belvédère Abbé Pierre » deituriko eremuaren izena aldatzea komeni dela, eremu publikoan anbiguitasun oro saihesteko.

Magis jaunaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU Elizako plazatik abiatu eta Errobi ibarraren gainerainoko eremua, « Belvédère Abbé Pierre » deiturikoak ez duela gehiago izenik ukanen, eta orain arteko izen hori kenduko dela;

AGINDU DIO Auzapezari behar diren izapide guztiak egitea eta besteak beste herriko bideen planoak eta taula eguneratzea.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari izen horren kentzeko izapide oren hartzeko.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak ekimena goraipatu du eta zehaztu du Nahi Dugun Herria erabat ados ez ezik, galdea egiteko xedea zuela, eta aldi berean ohartzen da zein erraza den karriken izenen aldatzea.

Auzapezak zehaztu du egungo saioan gai hau Herri Biltzarrean eztabaidatzen den arren, bide izenei buruzko erabakiak ez direla beti hain sinpleak eta ezadostasunak izan daitezkeela. Gehitu du normalean batzordeak eztabaida sakonagoko kasuak aztertzen dituela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak Behereko plazako biztanleek « Oiloa » izeneko karrikari buruz egin galdera aipatu du, irizten baitute gutxiesgarria dela eta ea auzapezak edo orde batek errezibitu ote dituen.

Auzapezak ezetz, baina galdera azertu dutela eta herriko etxeko gehiengoaren aburuz izen hori ez dela arazo ez eta gutxiesgarri ere.

Auzapezak Didier Irastorza ordeari eman dio hitza, zeinak zehaztu baitu «Oiloa zela Kanbon biziki ezaguna zen gizon baten goitizena, betaurreko biziki lodiak zituena eta begiak beti hetsiak zitena; hortik dator kio ezizena eta ez dela deus peioratiborik».

Argitxu Hiriart-Urruty anderea kexu agertu da, izena desegokia delako eta biztanleek arreta demokratikoagoa merezi dutelako.

Auzapezak ihardetsi dio berriz ere gehiengoaren ustez izena ez dela iraingarria.

Eztabaida ezadostasunean bukatu da. Argitxu Hiriart-Urruty anderearen ustez ez da normala pertsona baten ezaugarri fisikoez trufatzea, eta izena aldatu izan balitz tentsioak eragiten dituen gaia lasaitu zitekeela. Vincent Goytino jaunaren iritziz, izendapena ez da pertsona horri erreferentzia eginez erabaki, eta ondorioz ez dagoela trufarik.

005 – Assantzaborda II etxe multzoa: bideak herriko bideen zerrendan sartzea eta sailkatzea.

006 – Olhako bidearen zabaltzea: lur-sailen eskuratzea erregularizatzea eta eremu publikora pasatzea.

ERABAKIA:

Magis auzapezordeak oroitarazi du orain dela zenbait urte herriak errepide-ekintza bat burutu zuela bertako bizilagunek onarturik:

- Olhako errotaren bidearen zabaltzea bide horren zati txiki batean.

Halere, adierazi du ekintza horren egiteko eskuratze notario-egintza ez dela egina izan. Herri Biltzarrari proposatu dio egoera hori zuzentzea.

Magis jaunaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU ekintza horren egoera zuzentzea, eskuratu den terrenoa ofizialki eskuratuz:

Lur-sailak	Azalera	Jabea	Prezioa	Bidearen izena
BO 15	3 m ²	HIRIART Josette	Euro sinbolikoan	Olhako errotako bidea
BO 14 zati bat	3 m ²	HIRIART Josette	Euro sinbolikoan	Olhako errotako bidea

ERABAKI DU lur-sail horiek eremu publikora pasatzea.

AGINDU DIO Auzapezari ekintza horren eta eremu publikora pasatzeko behar diren izapideen egiteko, eta bereziki herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzeko.

007 – Micro-Folie dispositiboaren ezartzea: proiektuaren balioespena.

ERABAKIA:

Auzapezak jakitera eman du Micro-Folie dispositiboa dela Frantziako kultur Ministerioak sustatu kultur politikaren elementu berritzaile bat, eta La Villette zentroak Pompidou Zentroa, Versailles-eko gaztelua, Louvre museoa, eta Pariseko Opéra nazionalarekin partaidetzan koordinatzen duena.

Micro-Folie ekintza batek kultur eduki ludiko eta teknologikoak eskaintzen ditu, edozein lekutan koka daitezkeenak eta kulturarako sarbidea erraztea du helburu. Museo digital horrek hainbat erakunderen (gaur egun 230 partaide) milaka obra biltzen ditu eta urtero 250 eta 400 artelan gehiago gehitzen zaizkio.

Auzapezak zehaztu du hainbat bisita-modu posible direla: bereziki "bilduma" modua non museo digitala denen eskura egoten baita, non bakoitzak nahieran nabigatu dezakeen, edo "hizlari" modua taldeentzako bisita tematikoak eta programatuak antolatzeke irakasle eta animatzaileentzako bitartekaritza euskarriekin.

Micro-Folie dispositiboa modulutan antolatua da, leku desberdinetara eta bertako erakundeen beharretara egokitzeko (mediatekak, ondare-guneak, lehengo saltokiak, kultura-guneak...). Bertsio finkoa ala ibiltaria har dezake. Gutxienez, museo digitalaz osatua da, eta jende kopuru handi bati partaidetzan diren egituretako bildumak ikusteko aukera ematen dio, bereizmen gorenean.

Kanbo herriak bertsio ibiltaria eskuratzeko asmoa du, antolatuko ditugun bitartekaritza eta erakusketa ekintzen arabera lekuz aldatu ahal izateko, hala nola mediateka, Assantza etxean, edo menturaz Arnagako Zalditegietan, berritze lanak bukatu eta.

Dispositibo horri esker herriak bere kultur eskaintza aberastuko luke, eta kulturarako sarbidea hobetuko luke. Halako dispositibo batekin publiko zabal bat hunkituko genuke, bi arrazoirengatik: lehenik, gure herriaren zentraltasunagatik, eta bigarrenik Euskal Elkargoaren eremuan dispositibo horrek duen hedadura eskasagatik.

Micro-Folies dispositiboa bi urratsetan ezartzea proposatu du. Lehenik, materiala maileguz urririk eskuratzeko sei hilabeterako 2025eko lehen hiruhilekotik goiti probak egiteko, eta bigarren urrats batean, 2025eko azken hiruhilekotik goiti, materialaren erostea. Hautatuko den bertsioaren arabera 50 000 €ko litzateke kostua, zergaz kanpo, eta frantses estatuaren %80ko diru-laguntza batekin.

Zehaztu du proiektu horrek urtero 1 000€ko (ZB) sari bat ordaintzea eskatuko duela Micro-Folie sarearen animazio gastuentzat.

Frantses estatuak hastapeneko mailegua onar dezan 2025eko lehen seihilerako, gaurdanik erabaki behar dugu.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU- proiektua onestea, bai edukian baita proposatu den bi urratseko egutegian.

- frantses estatuari eta beste diruztatzailerei ahal bezainbat diru-laguntza eskatzeko ekintza mota horrentzako.

ZEHAZTU DU ekintza horren diruztatzeko funts libreak erabiltzen ahalko direla edo mailegu bat egin, diru-laguntza txostenean aurkeztu den finantzamendu planaren arabera.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide ororen egiteko eta txosten horri datxikon dokumentu oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie andereak galdetu du nolako materiala izanen den bertsio ibiltariko.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du proiektuaren pantailak, errealitate birtualeko kaskoak eta tauleta izanen direla, bitartekaritza saioa publiko desberdinei egokitzeko (ikastetxeak edo publiko zabala). Dispositiboak finkoak eta modulagarriak izanen da. Lehenik Assantza etxean estreinatuko da, eta menturaz gero mediatekan eta Arnagan.

Amaia Beyrie andereak galdetu du ea eduki pertsonalizatuak sortzen ahalko diren.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak baieztatu du urteko bazkidetzarekin (1 000 €) existitzen den katalogoa erabil daitekeela baina aukera izanen dela ibilbideak egokitzeko tokiko beharren arabera, bereziki ikastetxeentzat.

Amaia Beyrie andereak galdetu du materiala nola utziko den eskolen esku.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du Herriko etxeak duela materiala kudeatuko, baina ikastetxeen eskura izanen dela.

Auzapezak berretsi du hastapen batean materiala publiko zabalarentzako ezarriko dela Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak aipatu hiru lekuetan. Agertuko diren beharren arabera egokitzapenak egingen dira. Zehaztu du, Frantziako Bergerac hiriaz gain, Donibane Lohizunek ere halako ekimena abiatu duela, proiektu horrek sortzen duen interesaren adierazgarri.

Jean-Paul Alaman jaunak galdetu du ea talde berezi bat izanen den dispositiboaren animazioa egiteko.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak erantzun dio lan bat bidean dela Duzert anderearekin langileak bitartekaritza eginkizun horretara zuzentzeko, eta saio publiko nahiz pribatuaren antolatzeke. Azpimarratu du halako proiektu batean gizakien laguntza ezinbestekoa dela eta Herriko Etxeak Micro-Folies sarearen laguntza ere ukanen duela.

Amaia Beyrie andereak galdetu du ea Donibane Lohizuneko esperientzia baikorra ote den.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak erantzun dio berriki hasiak direla dispositiboarekin, eta ondorioz goizegi dela ebaluazio baten egiteko. Halere, Akitaniako beste hiri batzuetatik oihartzun baikorrak izan direla aipatu du..

Auzapezak dio Bergerac hiriak esperientzia baikorra partekatu duela: dispositibo ikusgarria da eta badirudi dena ongi dabilela. Gurean bertsio ibiltaria hartzeko ideia Bergerac-ekoa ikusi-eta jin zaiola. Azpimarratu du zentzuzkoa dela Arnagaz gain beste leku batzuetan erakustea, hala nola mediatekan, Assantza etxean, publiko zabala hunkitzeko xedearekin.

008 – Lehen mailako eskolako jolasgunean natura txertatzea: proiektuaren balioespena.

ERABAKIA:

Aristizabal andereak Herri Biltzarrari oroitarazi dio AHIArekiko hitzarmenean hartu engaiamendua lehen mailako eskolako jolasgunea arraberritzeko.

« A vous de jouer » mekanismoari esker obra kudeatzaile talde bat izendatu da « TER-TER » elkarteaz eta « TOUT -TERRAIN » kolektiboaz osaturik. Taldean paisaia, arkitektura, lorezaintza eta eraikuntza alorretako profesionalak bildu dira.

Jolasgunea eraberritzeko proiektuaren helburua da jolasgunea klima aldaketari egokitzea, freskotasun guneak sortzea eta natura txertatzea, jakinez gaur egun gunearen %90 artifizializatua dela.

Proiektuaren beste helburuetako bat da eremuak, materialak eta erabilerak hobeki kudeatzea, erabiltzaileen iritziak harturik (haurrak, irakasleak, aisialdi guneako animatzaileak, gurasoak, lekuaren mantenua eta garbiketa egiten duten langileak).

Obra kudeatzaile taldearen proposamena oinarritzat hartuz, herriko zerbitzuek eta kanpoko enpresek egin beharko dituzten obren programa onetsi beharko dugu.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU - prospekzio urraspidea onestea,

- frantses estatuari eta beste diruztatzaleei ahal bezainbat diru-laguntza eskatzea ekintza mota horrentzako.

ZEHAZTU DU ekintza horren diruztatzeko funts libreak erabiltzen ahalko direla edo mailegu bat egin.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide orekin egiteko eta txosten horri datxikon dokumentu oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Peio Etxeleku jaunak galdetu du zein den aurreikusitako gastua eta egutegia.

Auzapezak esplikatu du ekintzaren aurrekontua, hastapen batean 50 000 €tan aurreikusia, departamenduko herri guzientzako aurreikuspena zela. Gure herriak proiektu handiagoa du lehen mailako eskolarentzat. Herriko etxeak proiektua AHIArekiko hitzarmenaren esparruan kokatu nahi izan du diru-laguntzak ukateko xedearekin. Zehaztu du, zaila izanik ere diru-laguntzen zenbatekoaz espekulatzea, egoera ikusirik, abiapuntua 50 000 €ko zenbateko

horretan da, eta gero hori doitu beharko da. Aipatu du, besteak beste aterpearen eta harmailen berriz egiteko arazoa, zeinek 50 000 €ak gaindiaraziko baitituzte.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak azaldu du AHIak bultzatu "À vous de jouer !" dispositiboa 2024ko urritik 2025eko urrira arte izanen dela indarrean. Proiektuak hainbat helburu ditu: eskolako erabiltzaile eta mantenuaz arduratzen direnekiko hitzartzea. Gaur berean eskolen mantenuaz arduratzen diren langileak mintzatu dira obra kudeatzaile taldearekin eta bihar herriko zentro teknikoaren aldi izanen da. Zehaztu du hitzartze horretarako proiektuaren proiektzioa, lanen gauzatzea eta jolasgunean natura txertatzeari buruzko pedagogia lanak eraman beharko direla. Helburua da eremuak bestela antolatzea ikasle eta helduek beren ohiturak alda ditzaten, baina ingurumena kontuan hartuz.

Peio Etxeleku jaunak ohartarazi du lanen iraupena gutxi gorabehera urte betekoa litzatekeela.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak baietz eta heldu den udan abiatuko direla. Landaketei dagokienez, berriz, ondoko neguan eginen dira lanen zati handiena egin eta gero.

Auzapezak zehaztu du ekintza horren aurrekontu orokorra 300 000 eta 360 000 € artean kokatzen dela. Nahiz eta herriak AHIaren arauak betetzen dituen ekimen horretan, begi bistakoa da 50 000 €ko langa gaindituko dela. Aipatu du Angelu bezalako beste herri batzuek halako lanak egin dituztela baina aurrekontu handiagoekin. Kasu honetan, proiektu handi nahi honekin herriak duen helburu nagusia da AHIaren bidez lor daitezkeen diru-laguntza gehien eskuratzea.

009 – Euskal Elkargoa: lurralde hitzarmen globalen lankidetzaren funtzioaren antolatzeko zerbitzu amankomunerako bazkidetzaren hitzarmena.

ERABAKIA:

Bixente Goytino jaunak oroitarazi du 2024ko maiatzaren 15ean, Errobi eremuko 11 herriek Lurraldeko Hitzarmen Orokor (LHO/CTG) bat izenpetu dutela Familien Laguntza Kutxa (FaLK) eta Euskal Hirigune Elkargoarekin. Horrek haurtzaro-gazteria kontratuak deiturikoak ordeztuko ditu burura heltzen diren arau.

Zehaztu du lurralde hitzarmen orokorra lankidetzaren urraspidea dela, lurralde batentzako gizarte proiektu partekatu baten osatzeko, zeinak burura helduko diren haurtzaro-gazteria kontratuak ordeztuko dituen.

LHO familia-politika orokorra da, elkarren artean eraikia, gauzaren mota anitzekoa, familien beharrei eta hauteman diren erronkei egokitua, baita lurraldearen eta haren baliabideei egokitua ere. Honako gaiak jorratzen ditu: etxebizitza/bizi ingurunea, zuzenbiderako sarbidea/teknologia digitala, lehen haurtzaroa, gurasotasuna, haurtzaroa/gazteria, elkartasuna/bizi sozialaren animazioa.

LHO bat egiten denean finantzazio berezia dagokio - Bonus de Territoire deiturikoa- zeina FaLK-ak ematen baitie zerbitzu horiek kudeatzen dituzten herri, herri elkargo edo elkartei.

Eskumenak herri eta elkargoren artean partekatuak direnean, proiektuaren koherentzia bermatzeko ezinbestekoa da gidaritza bakarra izan dadin hitzarmenaren animatzeko eta eragileen mobilizatzeko. Hori da, hain zuzen, Errobi eremuko LHOn kasua, non Euskal Elkargoak baitu eskumenen zati bat (lehen haurtzaroa) eta herriak besteak. Proiektuaren gidaritza funtzio horri «lankidetzaren» deritza eta FaLK-ak eta hitzarmena izenpetu dutenek dute elkarren artean finantzatzen.

Lurralde hitzarmen orokorren lankidetzatza funtzioa betetzeko xedearekin Euskal Hirigune Elkargoak proposatu du Errobi eremuko herrientzako zerbitzu amankomun bateratu baten sortzea esperimentatzea bi urtez.

Hitzarmenak herriaren eta elkargoaren arteko engaiamendua berresten du zerbitzu amankomunaren funtzionamenduari buruz. LHOeko partaideen arteko zerbitzu amankomun bateratuaren eginkizunak eta haren finantzazioaren banaketa honako erabakiari erantsia zaion hitzarmenean daude zehazturik.

Kanbo herriak urtean 1 672 € ordainduko ditu.

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 5211-4-2 artikulua;

IKUSIRIK, 2017ko abenduaren 16ko Euskal Hirigune Elkargoko Batzorde Nagusiaren erabakia, Euskal Hirigune Elkargoaren eremu osoan "Elkargo-intereseko gizarte ekintza" deitu hautazko eskumenaren egikaritzea onesten duena;

IKUSIRIK, 2018ko azaroaren 3ko Euskal Hirigune Elkargoko Batzorde Nagusiaren erabakia, "Elkargo-intereseko gizarte ekintza" deitu hautazko eskumena definitzen duena;

IKUSIRIK, 2024ko maiatzaren 15ean, Errobi eremuko 11 herriek izenpetu duten Lurraldeko Hitzarmen Orokorra (LHO/CTG) Familien Laguntza Kutxa (FaLK) eta Euskal Hirigune Elkargoarekin.

IKUSIRIK, Euskal Hirigune Elkargoaren Batzorde nagusiaren 2024ko ekainaren 15eko erabakia, lurralde hitzarmen orokorren esparruan lankidetzatza funtzioaren antolatzeke zerbitzu amankomun bateratu baten sortzeari buruzkoa;

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari eranskinean den hitzarmena eta hari datxikon agiri oro izenpetzeko,

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak azaldu du proiektu honen inguruko hitzarmena Errobi Lurralde Eremuan aztertu zela, non FaLK-ek %50eko ekarpena egiten baitzuen eta gelditzen zena bi lurralde eremuen artean banatzen baitzen, hots Hazparneko eremua eta beren herriari zegokiona. Halere, erran du egoera konplikatu dela Euskal Elkargoak giza baliabideen kudeaketan hartu neurri batengatik. Izan ere, neurri horrek bidean ziren kontratatzeak eten ditu, LHOetarako langileenak barne. Langile horien hautatzeko epaimahaia aste honetan bildu behar zen, baina hori ere deuseztatua izan da. Espero du gauzak laster aldatuko direla. Halere, azpimarratu du garrantzia handikoa dela FaLK-ekin hitzordua finkatzea finantzazioa adosteko, gauzak argitzen diren bitartean.

Peio Etxeleku jaunak zehaztu du zenbait milioiko lurralde bonusa eskuratzen duela FaLK-ak, baldin eta koordinatzaile bat kontratatzen badu. FaLK-ak postu horren erdia ordaintzen du.

Auzapezak berretsi ditu erranak.

010 – Euskal Elkargoa: Ipar Euskal Herriko GIS zerbitzu bateraturako (Geografia Informazio Sistema) bazkidetza hitzarmena.

ERABAKIA:

Magis jaunak honakoa azaldu du:

Hitzaurrea eta testuingurua

Euskal Hirigune Elkargoak zerbitzu bateratua proposatzen du herriek lurraldeko geografia informazio sistemarako sarbidea ukan dezaten. Zerbitzua bi alditan garatuko da:

1. *GeoBasque* elkargoko tresna urririk eskura ezartzea bazkide diren herrientzat (oinarrizko zerbitzua) 2025eko urtarrilaren 1etik.
2. Eta geroago, nahi duten herrientzako datu sakonagoak, funtzionalitate gehiago eta zerbitzu gehiago (zerbitzu aurreratua, ordaindiz eskuragarri izanen dena).

Testuingurua: datu geografikoetarako sarbideen aniztasuna lurraldean

2020tik Euskal Elkargoak bere lurraldearentzako geografia-datuen azpiegitura berria du, *GéoBasque* izeneko, datuen kalitatea eta fidagarritasuna bermatzeko eta kostuak eta eguneratze-efortzuak (materiala, softwareak eta giza baliabideak) arrazionalizatzeko. Horri esker harroin amankomun batean harmonizatu, bateratu eta aberastu dira lehengo herri elkargoek zituzten sistema desberdinetako datuak eta tresnak.

Ordurarte *GéoBasque* ez da herrien esku ezarri, besteak beste Ipar Euskal Herriko TLEPe herri guzietan eskaintzen dielako bere « SIG SIF3 » edo « arcOpole » (oraingoz Elkargoaren WGEO PC eta WGEO DIA instrukzio tresnekin loturan daudenak) tresnak kontsultatzea. Bestalde, herri batzuek Tokiko Kudeaketa Agentzia Publikoaren GIS zerbitzua baliatzen dute, edo WebSIG IsiGéo adibidez.

Euskal Hirigune Elkargoaren eta bazkide dituen herrien arteko GIS zerbitzu amankomun bateratu baten sortzeko bidean.

GIS zerbitzu amankomun eta bateratu horren sortzeak herriaren eta elkargoaren beharrei ihardesten die.

- **Bateratzeari esker**, pixkanaka GIS tresna bakar batera joko dugu, *GéoBasque*, herrietako eta elkargoko langileentzako erreferentzia amankomuna izanen dena.
- Euskal Hirigune Elkargoak **GIS tresna partekatua** ezartzeari esker herriak bere eremuko geografia-datuak eskuragarri izanen ditu (katastroa, hirigintza agiriak, sareak, airetiko edo satelite argazkiak, helbideratzea eta abar.), eta gainera eguneratuak izateko bermearekin.
- **Datuen kalifikazioa eta hobetzea:** lurralde eskalatik ahal bezain hurbil izanik, tresna amankomun baten kontsultatzeak datuen eguneratze eta ontze dinamika baikorra sortzen du (adibidez agertuko liratekeen akatsak seinatuz).
- **Tresna federatzailea:** herriek eta elkargoak egunero ber tresna erabiltzeari esker GIS erreferentziak eta identitate amankomuna indartzen dira.
- **Xuhurra eta ekologikoa:** GIS zerbitzu amankomunari esker herriak Euskal Elkargoak administratzen eta zentralizatzen duen WebGIS baterako sarbidea izanen du sarean, zerbitzari bakarrean bildurik, administrazio kostu mugatuekin, bizkortasun handiagoarekin, eta tresna desberdinen arteko bateragarritasuna bermatuz.
- **Ezinbesteko bilakaera tekniko:** *GéoBasque* sistemak TLFEP-en SIF3 ordeztuko du, baina datu berak eskainiz, zeinak gainera elkargoaren datuez aberastuak izanen baitira.

GéoBasque herriaren esku ezartzeko modalitateak

Beharrei ahal bezain hobeki erantzuteko, honako arkitektura proposatzen da geografia-informazio zerbitzu amankomun bateratua sortzeko:

Zerbitzua *GéoBasque* herriaren esku ezartzean datza. Euskal Elkargoak 2020tik finantzatu eta garatutako tresna da. GIS zerbitzuko langileek bermatuko dute zerbitzu amankomun eta bateratuaren funtzionamendua, elkargoarentzat egiten dituzten eginkizunez gain. 2025ean langile bat bereziki arduratuko da zerbitzu amankomunaren garapenaz.

Ipar Euskal Herriko GIS zerbitzu amankomuna bat bestearen ondotik garatuko diren bi zerbitzuz osatua izanen da:

- Lehen zerbitzuak, hemendik aurrera «oinarrizko zerbitzu» deituko dena, *GéoBasqueren* bidez lurraldeko geografia-datuak eskainiko ditu (tresna bereziak salbuetsita), baita erabiltzeko formakuntza bat eta erabiltzaileentzako asistentzia. Urririk garatuko da 2025eko urtarrilaren 1etik goiti hitzarmeneko xedapenen arabera.
- Ondotik oinarrizko zerbitzurako harpidetzan oinarrituz, «zerbitzu aurreratua» osatuko da horretarako borondatea izanen duten herriekin herriko datuen txertatzeko, zerbitzu gehigarriak ezartzeko edo datuak eskuratzeko eskaera-taldeak osatzeko.
Zerbitzu honek baliabide dedikatuak beharko ditu, eta aurrekontua zehaztu beharko da. Herriak adierazi beharren eta harpidetuko den herri kopuruaren arabera fakturatzea eginen da. Zerbitzu aurreratua elkarren artean eraikitzeko tailerrak 2025 bukaeran eta 2026 hasieran eginen dira.
Hitzarmenari gehituko zaion emendakin batean zehaztuko dira dispositiboa eta harpidetza baldintzak.

"Oinarrizko" GIS Zerbitzu amankomunaren aplikazio esparrua:

Oinarrizko zerbitzuan sartzen dira elkargoko oinarrizko datuetarako kontsultak, galderak, inprimatzeak eta esportatzeak, baita erabiltzaileentzako laguntza eta euskarria.

Lurralde informazioko zerbitzuaren egitekoak dira:

- *GéoBasque* funtzionamendu baldintza egokietan atxikitzea, kanpoko zerbitzu emaileen kudeaketa eta jarraipena eginez tresnaren funtzionamendua bermatzeko;
- herriarentzako erabiltzaile kontuen administrazioa: banakako kontuen sortzea, bakoitzari dagozkion baimenen kudeaketa, datu pertsonalen erabilerari buruzko araua bereziki katastrorako;
- datu fidagarri eta eguneratuen oinarriaren kudeaketa teknikoa eta administratiboa;
- Datuen katalogoa;
- tresnen oinarrizko erabilerarako formakuntza: gehienez 20 formakuntza saio 2025ean lehen urtea delako, eta lehentasunez langile teknikoentzat eta gero eskaera egiten duten hautetsientzat;
- *GéoBasquen* erabiltzaileentzako euskarri teknikoa eta asistentzia, GIS zerbitzuaren laguntza tiket sistema baten bidez eskatzeko aukerarekin;
- Euskal Hirigune Elkargorekin eta herriaren arteko bateratze eta koordinazio dispositiboaren animazioa;
- geografia-informazioari buruzko behaketa teknikoa eta juridikoa.

Martxan ezartzea eta iraupena

Ipar Euskal Herriko GISeko zerbitzu amankomunerako bazkidetza honako hitzarmena bi aldeek izenpetuko dutenean sartuko da indarrean, 2025eko urtarrilaren 1etik goiti.

Hitzarmena ez da denboran mugatua izanen

Ikusirik, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.5211-4-2 artikulua, eskumen transferituz aparte, herrien arteko erakunde publiko batek eta horretan bazkide diren herri zenbaitek zerbitzuak amankomunean garatzeko gaitasuna dutela dioena;

Ikusirik, erantsia den Euskal Hirigune Elkargoko geografia informazio sistemarako sarbide amankomun bateratuko bazkide izateko hitzarmen proiektua;

Magis jaunaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Euskal Hirigune Elkargoko geografia informazio sistemarako sarbide amankomun bateratuko bazkide izatea, erantsia den hitzarmen ereduaren xedapenetan;

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari edo haren ordezkariari hitzarmen horren eta datxikon dokumentu oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Xabier Heguy jaunak galdetu du ea datu bakarrak Euskal Elkargoarenak izanen diren ez?

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du lurralde osokoak direla eta denen eskura izanen direla, eta kanpoko zerbitzu emailek eta ikerketa bulegoek Elkargoaren akreditazioa beharko dute. Xabier Heguy jaunak datuen jabetza argitu nahi du bereizketa eginez erabilpenaren eta jabetzaren artean.

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du datuak Elkargoaren eta herrien jabetza direla, azpimarratuz geografia-datuek dutela oinarria osatzen.

Xabier Heguy jaunak zehaztu du datuetan badirela geografia-datuak eta mapan kokatzen diren objektuak. Galdetu du posible denetz herriari bereziak zaizkion datuak txertatzea, herriarentzako interes berezia dutelako, hala nola zikin ontziak.

Jean-Noël Magis jaunak uste du posible daitekeela baina hori zerbitzu aurreratua litzatekeela.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak bi gauza bereizten ditu: oinarrizko modulua, lurraldearen ezaugarriak biltzen dituen (hirigintza, katastroa, zoruen zuzenbidea, lur funtsak, helbideak), eta oinarri funtzional osagarria, zeinak sareen informazioak jasoko baititu (hezeak eta idorrak). Oinarri osagarriko tailerrak 2025 bukaeran hasiko dira, eta proposamen bat bada jadanik 2026 hasierarako. Azpimarratu du gaur egungo GIS zaharkituak jadanik aukera ematen zuela datu fiskalak eta hirigintzakoak trukatzeko, baina analisiak ez direla plataforma berrian egingen.

Jean-Paul Alaman jaunak galdetu du berrestea plataforma erakundeei erreserbatua izanen dela eta ez publikoari.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak berretsi du erakundeek soilik erabiltzen ahalko dutela plataforma.

011 – IEKA-ren (Ibilgailu Elektrikoen Karga Azpiegitura) eskumena TE64-ri ematea.

ERABAKIA:

Goytino jaunak herri biltzarrari oroitarazi dio Frantziako mugikortasunen orientazio legearen 68. artikulua aurreikusten duela erakundeek eta egitura publikoek «Ibilgailu Elektrikoen Karga Azpiegituren garapenerako gida-eskema» (IEKAGE) bat osa dezaketela. Dispositibo horrekin, bere lurraldean karga azpiegiturak garatzeko zereginean herriari «lerro-buru» rola ematen dio, obra-agintari pribatu eta publikoen artean eskaintza adostu batera iristeko, tokiko mugikortasun politikekin koherentzian eta erabiltzaileen beharrei egokitua.

Ibilgailu elektrikoen kargatzeko eskaintzaren garapenak azken bost urtetan ibilgailu elektriko eta hibridoaren salmenten emendatzeari ihardestea du helburu.

Egia da publikoari irekiak diren Ibilgailu Elektrikoen eta Hibrido Kargagarrien Karga Azpiegiturak (IEKA) karga guztien %15-20 baizik ez direla, gehienak etxean edo lanean egiten baitira. Halere, publikoari irekitako IEKAK ezinbestekoak dira publiko eta erabilera batzuentzako (turismoa, pasaiako jendea eta abar) eta karbono gutxiagoko mugikortasunerako trantsizioan erabiltzaileen lasaitzeko.

Departamenduaren eskalan, publikoari irekitako IEKA sareak, non TE 64 sozietateak Biarnon eta Ipar Euskal Herrian 260 karga-gune ezarri baititu, ibilgailu elektriko eta hibrido kargagarrien erabiltzaileek ukan zitzaketen arranguren zati bat ezabatu du. Beste faktore batzuek ere eragin dute ibilgailu elektriko eta hibrido kargagarrien erosketen emendatzea: autonomiaren hobetzea, teknologien eraginkortasuna, marka gehienek ibilgailu elektrikoak eskaintzea eta prezio apalagoetan, airearen kalitatearen inguruko kezka, energia fosilen prezioen gorakada eta publikoaren sentiberatasun gero eta handiagoa deskarbonizazioari begira.

Pirinio Atlantikoetako Departamenduan TE 64k osatu du IEKA departamendu eskema, hamar hilabetez bertako eragile pribatu eta publikoetan bermatuz. 2023ko azaroan departamenduko Prefetak eskema onetsi zuen.

Noski, IEKADE batek arau zenbait bete behar ditu eta honakoak jaso:

- Diagnostiko bat (egoera, beharren bilakaeraren ebaluazioa, karga eskaintzaren garapenaren ebaluazioa, elektrizitate sarea, eta abar.);
- IEKA arloko lehentasunak eta helburuak;
- IEKA hedapenerako hurbilketa geografiko eta ekonomikoa;
- Ekintzen egutegi bat;
- Jarraipen eta eguneratze dispositibo bat.

Eskema horrek IEKAk hedatzeko estrategiarako ekintza gomendioak ematen ditu, datozen urteetan (2025, 2030, 2035) erabiltzaileek adieraz ditzaketen beharrei erantzuteko. Horretarako epe laburrean 900 karga-gune ezarriko dira.

Orain dugun helburua da norabide horiek gauzatzea Biarno eta Ipar Euskal Herri osoan beharrezkoak diren ekipamenduak ezarri, eta hedapen estrategiaren muinean dauden obra agintari pribatu eta publikoak artikulatuz.

TE 64k departamenduko herriei eta ENEDISi (elektrizitate hornikuntzaren operadorea eta karga-guneen konexioa koordinatzen duena) egin galdetegiaren bidez agertu da departamenduko eremu publikoan ezartzekoak den IEKA eskaintza pribatuak ahul izaten segitzen duela. Horrek erakusten du ekimen pribatuak eskasak direla.

Alabaina, Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2224-37 artikulua arabera, erakunde batek IEKA «bat sortzeko, mantentzeko eta ustiatzeko zerbitzua sortu edo ezar dezake» «baldin eta eskaintzari ez bada go edo eskaintza mugatuegia edo desegokia bada».

Eskemak erakutsi du gure lurraldean IEKAk hedatzeko herriez haraindiko ekimen baten antolatzeak interesa baduela. Herriez haraindiko ekimenak honakoak ahalbidetuko lituzke:

- Geografiaren estaldura hobea eta karga-guneen potentzia aukera pertinenteak, erabiltzaileen esperientzian eragin zuzena izateko;
- Karga-guneen teknologia eta salneurrien harmonizazioa, erabiltzaileentzako IEKA sarea irisgarriagoa izan dadin;
- Inbertsio eta funtzionamendu ekintzak bateratuz onura finantzario eta teknikoak izango dira, eta ondorioz ekonomia-eredua (eskala-aurrezkiak) eragin zuzena izango luke IEKA sarearen iraunkortasunean eta, ororen buru, erabiltzaileak ordainduko duen prezioan;
- Lurraldeko beste IEKA garatzaileekin koordinazio hobea, bereziki obra agintari pribatuekin (supermerkatuak, autobideetako geldiguneak,...);
- IEKA sarea denboran zehar modu koherente eta koordinatuan planifikatzea, jadanik existitzen den IEKA sarearen erabilpena lurralde osoan kontuan hartuz, baita beste instalazio proiektuak, teknologien bilakaera eta erabiltzaileen beharrak.

Herriez haraindiko ekimen baten ezartzea, lurralde elkartasuna eta zerbitzurako sarbide berdintasuna bermatuko luke, Prefetak IEKADEn azpimarratu duen bezala.

Haatik, departamenduko ezein Mugikortasun Sindikatuk edo herri arteko erakundek ez duenez halako ekimenik gauzatzeko borondaterik adierazi, TE64ren Bulegoak balioetsi du proiektu egituratzaile hau departamenduaren eskalan berak eramatea, ikerketa tekniko eta ekonomikoaren emaitzei begira.

Ondorioz, herriari galdena zaio IEKA eskumena TE64ri eskuz aldatzeari buruzko erabakia hartzea Frantziako LKKOko L.2224-37 artikulua araberara.

Herriak «IEKA eskumena» TE 64ri uzten badio, haren estatutueta baldintzetan, TE64 izanen da proiektuaren obra agintari, jakinez eremu horretan jarduteko TE64ak onetsi duen erdua kontzesio bidezko Zerbitzu Publiko Delegazioarena dela. Horrek erran nahi du delegazioa duenak dituela inbertsio gastuak eginen tokiko erakundearen orde, hark du zerbitzua ustiatuko (mantenu teknikoa, gainbegirada, elektrizitatearen ordainketa) eta erabiltzaileek ibilgailua kargatzeko ordainduko dutenetik baizik ez da ordaindua izanen. Honela, herriak ez du proiektuan diruz parte hartuko.

Eskumen aldaketarako prozedura 2024ko ikasturte sartzean abiatuko da, eta arauzko epeak segituz, delegazioa 2025eko apirilean hartuko balu proiektuaren garapena 2025 urte bukaera aitzin hasiko litzateke.

TE 64ren Sindikatu Batzordeak onetsi zituen, 2024ko irailaren 17an, eskumena eskuz aldatzeko baldintzak, zeinak hitzarmen batean txertatu baititu, baldintza teknikoak, administratiboak, juridikoak eta finantzazkoak eta IEKA eskumena egikaritzeko baldintzak zehaztuz, honako erabakiari erantsia zaion hitzarmenean ikus daitekeenez.

IKUSIRIK, frantses gobernuaren datu publikoen open data plataforman argitaratu den IEKADEaren edukia (www.data.gouv.fr),

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko xedapenak eta bereziki L.2224-37 artikulua,

IKUSIRIK, TE64ren estatutuak eta bereziki 2.f) artikulua

IKUSIRIK, honakoari erantsia zaion IEKA eskumena eskuz aldatzeko eta egikaritzeko hitzarmena, baldintza tekniko, administratibo, juridiko eta finantzazkoak zehazten dituena,

KONTUAN IZANIK eskumen hori TE64ri uzteak herriarentzako duen interesa, herriak departamenduko mugikortasun elektrikoaren bide orriarekin bat egiten baitu,

Goytino jaunaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU «Ibilgailu Elektriko edo Hibrido Kargagarrientzako Karga Azpiegitura» eskumena TERRITOIRE D'ENERGIE PYRÉNÉES-ATLANTIQUES (TE 64)sozietateari eskuz aldatzea, ibilgailu elektriko eta hibrido kargagarriek behar dituzten IEKak sortzeko, mantentzeko eta ustiatzeko zerbitzu baten ezartzeko, zeinaren ustiapenean sartzen baita ekipamendu horien hornitzeko elektrizitatea erostea;

ONARTU DU TERRITOIRE D'ENERGIE PYRÉNÉES-ATLANTIQUES (TE 64) sozietateak herriaren eremuan IEKak ezartzea, baldintza teknikoak, administratiboak, juridikoak eta finantzazkoak eta IEKA eskumena egikaritzeko hitzarmenaren baldintzetan;

ZEHAZTU DU honako erabakia TE 64ko Lehendakariari jakinaraziko zaiola;

EMAN DIO Auzapezari, herriaren eremuan IEKA ezartzeko eskumena eskuz aldatzeko agiri oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak adierazi du TE64ren karga-guneak eremu publikoan izanen direla nagusiki, baina publikoari irekiak diren ekipamendu pribatuak badirela, hala nola Gamm Vert edo Total Energies-renak. Bere ustez, nahiz eta indarra egin eremu publikoan, karga-gune pribatuak ere izanen dira.

Vincent Goytino jaunak zehaztu du TE64 eremu pribatuetan dauden karga-guneak ere zenbatzen dituela, Gamm Vert-ekoak bezala, baldin eta denei irekiak badira aparkaleku pribatu batean izanik ere.

Philippe Bacardatz jaunak azpimarratu du alde handia dagoela aipatu karga-guneen artean, potentzia eta salneurri azkarragoekin.

Vincent Goytino jaunak baietz.

Philippe Bacardatz jaunak azaldu du eremu pribatuetan gero eta gehiago instalatuko diren karga-gune bizkorrak izanen direla eta publikoari irekiak desberdinak direla, azken hauek txikiagoak izanik.

Vincent Goytino jaunak zehaztu du Sorhainde plazako karga-guneak ez direla karga bizkorrekoak, baizik eta motelak edo aski motelak. Desberdinak izan arren, karga-gune horiek publikoari irekiak dira, eta TE64k herrian eskuragarri diren karga-guneen zenbaketetan sartzen ditu.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea TE64ren proiektuak karga-gune bizkorragoak aurreikusten dituen.

Vincent Goytino jaunak erantzun dio oraingoak 22 kW-ekoak direla, baina 50 kW-ekoak aurreikusten direla.

Auzapezak dio, iragarpenen arabera karga-guneen %30 eremu pribatuan izanen direla eta %70 eremu publikoan. Zehaztu du zenbaki horiek karga-guneen banaketari dagozkiela, eta karga-gune bakoitzaren jarioa arrunt beste gauza bat dela.

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazi du ez dela karga-gunerik aurreikusten aparkaleku publikoetan, eta azpimarratu du hobe litzatekeela leku egokiago batzuetan ezartzea.

Vincent Goytino jaunak baieztatu du karga-guneak ez direla leku isolatuetan ezarri behar, baizik eta erabiliak izateko aukera gehien duten lekuetan, besteak beste saltokien ondoan operadore pribatuak gehiago erakartzeko gisan.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea TE64k ezarriko dituen karga-guneak eremu publikoan egonen diren ez.

Vincent Goytino jaunak erantzun dio publikoak izaten segituko dutela, baina karga-gune berriak zerbitzu publikoko delegazio baten esparruan ezarriko direla eta operadore pribatu batek dituela instalatuko. Hitzarmenak zehazten du karga-guneetarako sarbideak irekirik izaten segitu behar duela eta eremu publikoan egon behar direla.

Philippe Bacardatz jaunak arrangura adierazi du aparkaleku lekuak kendu beharko baitira karga-guneen ezartzeko.

Vincent Goytino jaunak lasaitu nahi izan du eta zehaztu du TE64k zin egin duela karga-guneen kokapena herriarekin adosturik erabakiko duela, herriarekin hurbileko lankidetzan. Auzapezak harridura adierazi du TE64k hartu baitu proiektu hori eta ez Mugikortasunen Sindikatuak, iruditzen baitzaio logikoagoa litzatekeela azken honek bere gain har zezan.

Vincent Goytino jaunak ildo beretik jakinarazi du TE64k ere harridura bera adierazi duela eta deitoratzen duela beste eragilerik ez nahi izatea gai hori bere gain hartzea.

Philippe Bacardatz jaunak oroitarazi du mugikortasunen sindikatuak sarearen hedatzeko eskumena duela, eta karga-guneak sareak hauek har ditzakeen lekuetan ezarriko direla.

Peio Etxeleku jaunak bi puntu aipatu ditu: lehenik ez dela izan TE64rekiko alternatiba proposamenik, ez eta deialdirik, eta nahiz eta proiektuak ez dion deus kostatuko herriari ez duela ezta ere etekinik ematen. Bere buruari galdetzen dio TE64k ez ote duen dirua irabazteko aukera bat ikusten, bereziki ibilgailu elektrikoaren kopurua emendatzen ari delarik. Bigarrenik, kontratuaren iraupenak kezkatzen du. 15 urte iraupen luzea da eta tarte horretan herriak diru sarrerak egiteko aukera galtzen du.

Vincent Goytino jaunak azaldu du 15 urteko iraupena ekintzaren errentagarritasuna bermatzeko dela, operadore pribatuari epe luzeko ikuspegia emanaz. Gehitu du, gaur egun egoerari konparatuz herriari orain baino merkeago aterako litzaikeela. Zehaztu du gaur egun herriak 500 € ordaintzen duela Sorhainde aparkalekuko karga-guneen funtzionamenduarentzat, nahiz eta zenbatekoaz ez den arras segur.

Peio Etxeleku jaunak azpimarratu du karga-guneen ustiapena TE64ren gain egiten dela, eta berak duela elektrizitate prezioetik etekina ateratzen.

Vincent Goytino jaunak baietz.

Peio Etxeleku jaunak erabiltzaile gisa duen esperientzia partekatu nahi izan du. Azpimarratu du karga-gune publikoetan kargatzea garestia dela eta ondorioz nahiago duela etxean kargatu.

Vincent Goytino jaunak baieztatu du karga-gune publikoetan kargatzea etxean egitea baino garestiago dela.

Auzapezak proiektuaren errentagarritasunaz zalantzak ditu. Lehengo galdera errepikatu du: ekonomikoki hain interesgarria balitz, zergatik Euskal Elkargoak ez du proiektua bere gain hartu? Azpimarratu du kontratuari iraupen luzea ezarri zaiola TE64k aukerak izan ditzan, baina pentsatzen du egoera ez dela hain begi bistakoa eta beste eragilerik ez dela aurkeztu proiekturako!

Peio Etxeleku jaunak iradoki du ikerketa bat egin zitekeela, nahiz eta ez jokagai nagusia izan.

Auzapezak erantzun dio ikerketa bat egitekotan Euskal Elkargoak egin behar zukeela.

Jean-Paul Alaman jaunak galdetu du ea hitzarmenak emaitza-betebehar bat ezartzen duenez karga-gune kopuruari buruz, besteak beste. Galdetu du zer gertatuko den hemendik hiru urteren buruan ez bada karga-gune bakar bat ere instalatu.

Auzapezak erantzun dio TE64k baduela horrelako emaitza-betebeharrik.

Jean-Paul Alaman jaunak kezka adierazi du sekula TE64 ez badituela bere engaiamenduak errespetatzen ea Kanbo herriak karga-gune gehiago eska ditzakeenez, ohartaraziz hitzarmenean halako aipamenik ez dagoela.

Vincent Goytino jaunak erantzun dio hitzarmenak aukera ematen diola herriari, hala nahi badu, bere kabuz karga-gune gehiago ezartzeko, baina hori osoki herriaren gain litzateke. Haatik, zehaztu du horrek gauzak konplikatuak litzuzkeela, zeren herria TE64rekiko hitzarmenetik kanpo legokeelako, zeinak akordioa jadanik izenpetu baitu operadore pribatu batekin.

012 – Ipar Euskal Herriko TSP: kapital sozialaren emendatzeko onespena

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Ipar Euskal Herriaren ekipamendua laguntzeko, egitura kudeatzaileen bidez daramatzaten jardueraz gain eta Ipar Euskal Herriko TLEP edo errentatzaile sozialen ekintzez gain, Euskal Hirigune Elkargoak, haren kide diren 17 herrik eta Ipar Euskal Herri Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak (IEHAMS) Tokiko Sozietate Publikoa (TSP) osatu dute zeinak eginkizuntzat izanen baitu bizitegi, ekipamendu publiko, ekonomia jarduera eremu, ingurune naturalen eta abarren antolamendua eta eraikuntza.

Ipar Euskal Herriko Antolamendu TSPk 225 000,00 €ko kapitala du eta egoitza Foch mariskalaren etorbideko 15.ean du, Baionan, eta Baionako Merkataritza Erregistroan erregistratu zen 2023 agorrilaren 23an.

Kapital soziala 19 akziodunen artean partekatua da, artean akziodun nagusi direlarik Euskal Hirigune Elkargoa eta Ipar Euskal Herri Aturriko Mugikortasunen Sindikatua.

Bere estatutuen arabera, honako xedea du TSPk: bere akziodunen eskumenekoak diren eremuetan antolamendu, eraikuntza eta birkalifikatze/berroneratze ekintzak ikertzea, diseinatzea, gauzatzea eta ustiatzea edo/eta kudeatzea.

Bere funtzionamendua arretaz segitzen duten akziodun boluntaristekin, Ipar Euskal Herriko Antolamendu TSP harro izan daiteke zeren sortu eta 12 hilabete geroago 60 bat proiektu eraman baititu.

Iragan urtean Ipar Euskal Herriko TSPk eraman ekintzek sozietatea modu iraunkorrean kokatzen dute administrazio, teknika eta finantza arloetan, aldiberean bere akziodunek eman dizkioten proiektuak gauzatuz eta jarduerak garatuz.

Sortu zenetik obra agintariak zituzten igurikitzei ihardesteko, izan hiriko bero sareen eraikitzeak ala berritzeak, nola energia berrikuntzarako, izenpetu diren kontratu gehienak obra agintarien laguntza eginkizunak eta finantza mandatuak izan dira.

Egiturak akziodunekiko duen harreman horrek ez du egitura diruz inplikitzen, zeren obra agintarientzako zerbitzu emaile gisa ari baita.

Gaur egun, TSPren kapitalak ez dio ahalbidetzen kontzesio kontratuak eramatea jada nahiko helduak diren antolamendu eremuetzat ez eta herriek eskumen arloan esku hartzeko hala nola hiriko bero sareetan inbertsioak eginez edo horiek ustiatuz, nahiz eta sozietatea sortzean hori aurreikusia zen. Izan ere, antolamendu kontzesioak edo hiriko bero sareak bezalako proiektuak eramateko bankuek gaiaren eta arrisku mailaren arabera funts propioak eskatzen dituzte.

Alta, eskuhartze modu horiek ezinbestekoak dira honakoetan:

- Tokiko Bizitegi Programa (TBP) gauzatzeko eta orokorkiago antolamenduko ekintza publikoa azkarki garatzea eskatzen duen lurraldearen garapena menperatzeko borondatea;
- energia trantsizioaren esparruan, klima aldaketaren jokagaien aurrean eta Ipar Euskal Herriko klima aire energia plan handi nahiaren helburuak kontuan izanik, energia berrikuntzako proiektuak eta energia berriztagarrien garapena indartzea, ekintza molde berrien eta esku hartze tresna eraginkorren bidez.

Bestalde, Ipar Euskal Herriko zenbait herrik, zeinak ez baitira oraindik TSPko akziodun eta ondorioz ezin dutenak haren eskuhartzea ukan herriko eskumenekoak diren hiriko bero sareen ezartzeko eta bestelako garapen proiektuen gauzatzeko, akziodun izateko interesa adierazi dute.

Ildo beretik, TSPren eskuhartzeak BIL TA GARBI sindikatuaren behar batzuei erantzun diezaieke.

Ipar Euskal Herriko Antolamendu TSPren lurraldearen aldeko garapena eta ekintzak laguntzeko, akziodunen eta kapitalaren emendatzea egin behar da, eta aldiberean bere osaketaren garaian aipatu ziren helburu politikoei erantzungo liokeen gobernantza modu bat irudikatu.

Ondorioz, honakoak aurreikusi dira:

- TSPren kapital soziala emendatzea 28 840 akzio berri jaulkiz, bakoitza 100€tan, kapital soziala 3 109 000 €koa izateko gisan;
- hasierako akziodunek ez lukete akzio berriak hartzeko lehentasunerako eskubiderik;
- Euskal Hirigune Elkargoaren parte hartzearen emendatzea 2 863 000 €tara, hots 28 630 akzio berri, erakundearen partehartzea 3 000 000 €ra heltzeko, hots 30 000 akzio;
- BIL-TA-GARBI sindikatuak 15 000 € sartuko lituzke, hots 150 akzio, eta Batzorde Bereziko Sindikatuen Kolegioan haren ordezkari baten izendatzea.
- Baigorri herriak 2 000 € sartuko lituzke, hots 20 akzio, eta haren ordezkari bat izendatuko da Batzorde Berezian;
- Beskoitze herriak 2 000 € sartuko lituzke, hots 20 akzio, eta haren ordezkari bat izendatuko da Batzorde Berezian;
- Makea herriak 2 000 € sartuko lituzke, hots 20 akzio, eta haren ordezkari bat izendatuko da Batzorde Berezian;
- Estatutu berrien eta Akziodunen Itun berriaren onarpena;
- Administrazio Kontseiluaren osaketaren egokitzea: Euskal Elkargoak 11 ordezkari atxikiko lituzke, Mugikortasunen jarlekua kenduko litzateke, Batzorde Bereziak 7 jarleku izango lituzke;
- Batzorde Bereziaren osaketaren aldaketa. Akziodun berri bakoitzeko ordezkari berri bat izendatuko da, Mugikortasunen Sindikatuarentzat (IEHAMS) ordezkari bat eta bi kolegio sortuko dira: 6 ordezkari kolegio bat Administrazio kontseilurako, eta ordezkari 1 bi sindikatu mistoentzat;
- Akziodunen bozka eskubideen aldatzea Biltzar Nagusirako;
- Gaur egun indarrean den akziodunen parte hartzea deuseztatuko da, Euskal Elkargoarena izan ezik.

2024ko ekainaren 27ko erabakiz, TSPren Biltzar Nagusiak helburu horien betetzeko xedea duen bide-orria onartu zuen.

Bide-orriaren lehen urratsean TSPko akziodun ez diren baina kapitalean sartzeko borondatea duten erakundeek erabaki bat hartu beharko dute kapitalean sartzeko borondatea berresteko eta beren agintariei baimena emateko sozietatearekin solasak abiatzeko kapitalean sartzeko modalitateei buruz (kapitalaren zenbatekoa, bozka eskubidea, organo desberdinetan izanen dituen ordezkarien kopurua...).

Hori da, hain zuzen, Baigorri, Beskoitze eta Makea herrien kasua, zeinek hurrenez hurren erabakia hartu baitute 2024ko uztailaren 15ean, 2024ko irailaren 17an eta 2024ko irailaren 24an.

Gauza bera BIL-TA-GARBI sindikatuarentzat, zeinak 2024ko uztailaren 17an hartu baitu erabakia.

TSPko Administrazio kontseiluak urriaren 3an kapital soziala emendatzeko eta akziodun berriak hartzeko erabakia hartu zuen. Administrazio Kontseiluak kapitalaren emendatzeari buruzko txostena osatu zuen eta kari horretara TSPko Kontu Ikuskariaren txostena, TSPren estatutuen proiektu bat eta akziodunekiko Itun proiektua aurkeztu zaizkie administrazio kontseilukideei.

Kapitalean sartu nahi duten erakundeek beste behin ere erabaki beharko dute, bereziki beren parte hartzearen zenbatekoa zehazteko, TSPren estatutu berriak onartzeko eta akziodunen Itunarekin bat egiteko, guzti hori Administrazio kontseiluaren txostenaren eta Kontu Ikuskariaren txostenen argitan.

Jadanik akziodun diren erakunde eta erakunde-taldek ere erabakia hartu beharko dute, kapitalaren emendatzea, akziodun berrien sartzea eta Euskal Elkargoaren partehartzea onartzeko. Hori da, hain zuzen honako erabakiaren xedea.

Ondotik, TSPko Ez-ohiko Biltzar Nagusiak erabakia hartu beharko du estatutuen eta itunaren aldaketak eta kapitalaren emendatzea onartzeko. Xedea da Ez-ohiko Biltzar Nagusiak bere erabakia har dezan 2024 bukaera aitzin.

Gorago zehaztu erabakitze prozesuaren ondotik, TSPk edozein hitzarmen egiten ahalko du kasik egitura-kudeatzaile gisara eta ekintza higigarriak, higiezinak, zibilak, komertzialak, industrialak, juridikoak eta finantzazkoak burutu bere kideen proiektuen gauzatzeko, baldin eta bere helburu sozialekin bat egiten badute.

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L .1531-1 eta L.1522-1 eta ondoko artikulua;

IKUSIRIK, Frantziako Merkataritza Kodea eta bereziki L. 225-1 eta ondoko artikulua;

IKUSIRIK, gorago zehaztu erabakiak;

IKUSIRIK, Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoaren gaur egungo estatutuak eta estatutu berrien proiektua;

IKUSIRIK, Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoaren gaur egungo Akziodunen Ituna eta Itun berriaren proiektua;

IKUSIRIK, Administrazio Kontseiluak Biltzar Nagusiari aurkeztu dion txostena;

IKUSIRIK, Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoaren Kontu ikuskariaren txostena;

IKUSIRIK, Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoaren Ez-ohiko Biltzar Nagusiaren erabaki proiektua;

Txostengilearen aurkezpena entzunik,

Kontuan izanik TSPEk zuzenbide pribatuko sozietate baten abantailak dituztela, alegia antolaketa malgua baina akziodun publikoen kontrolaren bermearekin;

Kontuan izanik, TSPEk soilik beren akziodunentzat jardun dezaketela, tokiko erakundeen eta horien arteko taldeen lurraldean;

Kontuan izanik, akziodun diren lurralde erakundeek eta horien arteko taldeek TSPren kontrol kolegiala egiten dutela, beren zerbitzuekin egiten duten bezala;

Kontuan izanik, Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoak bere jarduera garatzeko eta iraunarazteko duen borondatea;

Kontuan izanik; Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoko akziodunen borondatea akziodun berriak hartzeko, kapitalaren emendatze eta akzio berrien sortzearekin, baita Euskal Elkargoak bere partehartze soziala emendatuz;

Kontuan izanik, hasierako akziodunek ez dutela asmorik lehentasunezko eskubidea baliatzeko kapital soziala emendatzeko akzio berriak sortuz eta horrek dakartzan ondorioekin;

Kontuan izanik, Bil-ta-Garbi sindikatuak Batzorde Bereziko Sindikatuen Kolegioan ordezkari bat ukateko egin duen eskaera;

Kontuan izanik, herri sartu berriek Batzorde Berezian ordezkari bat nahi dutela;

Kontuan izanik, Administrazio Kontseiluaren eta Batzorde Bereziaren osaketak aldatu behar direla;

Kontuan izanik, akzioaren balioa 100 €koa dela, Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoaren aldeek hala baloraturik;

Auzapezak proposaturik,

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoaren kapital soziala emendatzea 28 840 akzio berri jaulkiz, bakoitza 100 €koa.

UKO EGITEN DIO kapital emendatze horretan akzioak hartzeko duen lehentasun eskubideari;

ONARTU DU banaketa berria

ONARTU DU Kapital sozialaren 3 109 000 €ko zenbateko berria, zeina akzio berrien sortzearen eta haien balioa eguneratzearen ondorioa baita;

ONARTU DU Baigorri herria kapitalean sartzea 2 000€rekin, hots 100€ko 20 akziorekin;

ONARTU DU Beskoitze herria kapitalean sartzea 2 000€rekin, hots 100€ko 20 akziorekin;

ONARTU DU Makea herria kapitalean sartzea 2 000€rekin, hots 100€ko 20 akziorekin;

ONARTU DU Bil-Ta-Garbi kapitalean sartzea 100€ko 150 akziorekin;

ONARTU DU Euskal Elkargoak 28 630 akzio berri hartzea bakoitza 100€koa;

ONETSI DU Christian Devèze jauna izendatzea Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoko Batzorde Berezian ordezkari izateko 2023ko martxoaren 8ko 20230308-005 erabakiaren arabera;

ONARTU DU Estatutuak eta Akziodunen Ituna arabera aldatzea;

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari erabaki horren egikaritzeko behar diren izapideen egiteko eta dokumentuak izenpetzeko.

BAIMENA EMAN DIO Ipar Euskal Herriko Antolamendu Tokiko Sozietate Publikoaren Ez-ohiko Biltzar Nagusian duen ordezkariari aipatu estatutuen aldaketaren alde bozkatzeko;

EMAN DIO Auzapezari, honako erabakia egikaritzeko neurri ororen hartzeko;

ADIERAZI DU Honako erabakiaren berri emanen zaiola Departamenduko Prefetari.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Jean-Paul Alaman jaunak gogoan du TSP sortzeko bozka, eta galdetzen du ea haren jarduteko gaitasuna indartuz ba ote den jadanik sozietate horrek egin inbertsioen adibide konkreturik. TSP horren rola eta funtzioak ulertzeko ahalegina egiten du.

Auzapezak azaldu du herri biltzarraren bozka eskatzen duela, gogora ekarriz Kanbo bi TSPetako kide dela, Ipar Euskal Herriko TSP eta Pirinio Atlantikoetako Departamendukoa. Bi TSP horietan akzioak hartzeak eragin zituen zailtasunak aipatu ditu, bereziki Ipar Euskal Herriko TSPrentzat 5 000€ko eta Departamendukoarentzat beste 500€ko gastuak izan direlako. Aipatu du ere Ipar Euskal Herriko TSPk ez duela proiektu nabarmenik lagundu, Departamendukoak ez bezala, zeina aktiboagoa baita, baina zehaztu du 225 000 €ko kapitalarekin ekiteko gaitasuna mugatua dela. Halere ohartarazi du Ipar Euskal Herriko TSPk Euskal Elkargoarentzako tresna berezi gehigarri bat ezartzea ahalbidetu duela.

Peio Etxeleku jaunak adierazi du bere taldeak abstentziora joko duela. Ipar Euskal Herriko TSP bidean da eta ez da zentzuzkoa haren prozesua trabatzea. Halere TSP horren sortzea kritikatzeko du. Uste du logikoagoa litzatekeela jadanik existitzen den SEPA erabiltzea, Departamenduko TSP bilakatu baita, eta 1957tik lan-talde bat eta gaitasunak dituen. Uste du egitura berri bat gehitzea, zenbait langilerekin eta administrazio pisu gehigarri batekin, urraspide deitoragarria dela. Gehitu du Euskal Elkargoaren diru egoerak Ipar Euskal Herriko TSPren hedapena motelduko duela.

013 – AUDAP: laguntza hitzarmena.

ERABAKIA:

Magis jaunak oroitarazi du Pirinio Atlantikoetako Hirigintza Agentziak (PAHA/AUDAP), zeinak egoitza Baionan baitu, 1901eko frantses legepeko elkarte dela. Estatutuen arabera, PAHAren jardun-esparrua lurralde prospektiba eta herri arteko planifikazioa da. Hori dela-eta, bere kideak laguntzen ditu antolamendu eta garapen politikak zehazten, eta datxizkien hirigintza eta planifikazio dokumentuen sortzen parte hartzen du. Bere jardun-eremua Pirinio Atlantikoetatik Landetako hegoaldera hedatzen da.

2023tik 2025erako programan zehaztua duen bezala, PAHak herriak laguntzen ditu herri-erdiguneko eskema osatzen eta hiri-garapenaren estrategiara hurbiltzen. Kanbo herriak egitura horren laguntza nahi luke bere erdigune proiekturako.

PAHAren estatutuen arabera, 2023ko uztailaren 7ko Ez-ohiko Biltzar Nagusiak aldatuak, Agentziak eskubideko kideak ditu (Frantziako estatua, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Euskal Hirigune Elkargoa, Pau-Béarn-Pyrénées Hirigune Elkargoa, eta abar,...), kide aktiboak, hots Akitania hegoaldeko eta Aturri herrialdeetako herrien arteko lankidetzak erakunde publikoak eta haien sindikatu mistoak (LKO, Mugikortasunak, Metropoli Poloa eta PETR, ...), kide arruntak, hiriko eta lurraldeetako eragileak, zerbitzu publikoko eta interes orokorreko eginkizuna duten egiturak, eta kide partaideak.

Kide partaideak dira Agentziaren proiektuan interesa duten herriak eta Agentziaren estatutuak onartu dituztenak. Herriek Hirigintza Agentzian bazkide gisa hartzea balio erantsiak ditu herri elkargoen politika publikoak herri mailan garatzeko, eta halaber abantaila izan ohi da herri-arte eskalaren kohesioa mantentzeko.

Kide berri ororen onarpena Administrazio kontseiluak gehiengoz erabaki behar du, herria eta bere herri elkargoak elkarrekin galdera eginik. Herria elkargoko kide gisa aurkezten denez Agentziara "2. mailako kide" izendatzen da.

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

Kontuan izanik, Agentziako kide den Euskal Hirigune Elkargoak eman aurretiko onespena Herria Hirigintza Agentziako bazkide izan dadin,

Kontuan izanik, Herriak interesa baduela PAHAren baliabideez eta jakituriaz baliatzeko bere hiri-garapenerako estrategia zehazten laguntzeko, bereziki erdigunea eta ekipamendu publikoak Herriko Etxearen inguruan indartzeko.

Kontuan izanik, urteko bazkide (50 €) eta agentziaren giza baliabideen eguneko kostua (520 € egunean), PAHAren Lankidetzaren Programan parte hartzeko hitzarmenean zehaztu bezala, laguntza honentzako gehienez 50 egun izan daitezkeelarik,

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

BAIMENA EMAN DU herria PAHAko bazkide izateko urtean 50€ko kostu batekin eta eskuhartze egun bakoitzeko 520 €ko kostu batekin,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari PAHAren Lankidetzaren Programan parte hartzeko hitzarmena izenpetzeko, honako erabakiari erantsia zaion ereduaren arabera.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak, bozkatu aitzin, xehetasunak eskatu ditu erdiguneko proiektuari buruz.

Jean-Noël Magis jaunak erantzun dio gogoeta bat bidean dela Santa-Maria eskola ohiaren gibeletako terrenoei buruz, zeinak herriak erosi baititu, baita Toki Eder eta Herriko Etxearen artean kokatuak diren Toki Ederren terreno bati buruz. Hasierako eskuhartze perimetroa eremu horietan kokatzen da.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak insistitu du erdiguneko proiektuari buruzko xehetasunak ukateko.

Jean-Noël Magis jaunak azaldu du gehiengoa programa bat aztertzen ari dela, baina oraingoz antolamendu eskema baten osatzen ari direla PAHArekin lankidetzan. Eskema horrek zehaztuko du zer egiten ahalko den. Gero, hitzartze bat antolatuko da proiektua herri biltzarkideekin partekatzeke.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak erantzun dio zaila dela PAHArekiko lankidetzan bat onestea proiektuaren helburu zehatzik ukan gabe. Biziki harrigarria eta problematikoa iruditzen zaio.

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du gaurko gaia hitzarmena izenpetzea dela, ez proiektua behin betiko onestea.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak jokoan dena hobeki ulertzeko proiektuari buruzko zehaztasunak eskatu ditu.

Auzapezak erantzun dio proiektua hastapenetan baizik ez dela oraindik. Proposatzen den hitzarmenak erdigunearen antolamenduari buruzko gogoeta abiatzeko balio du, existitzen den sektorearekin lotzeko asmoz. Zehaztu du ez dagoela proiektu zehatzik partekatzeke, baina gogoeta pilota plazatik Bordart etorbidera arteko merkataritza ordokiaren antolamenduaz izanen dela. Zehaztu du PAHA gogoeta horren laguntzera jinen dela, baina zehaztu du proiektua diseinatze fasean dagoela oraindik.

Nathalie Aïçaguerre andereak oroitarazi du merkatu estali bat aurreikusitako zela eskuhartze funtsen ukateko.

Auzapezak erantzun dio balitekeela antolamendu proiektuan merkatu estali bat izatea, baina hori oraindik zehaztekoa dela eginen den gogoetaren bidez.

Nathalie Aïçaguerre andereak azpimarratu du merkatu estalia aspaldian bukatua izan behar zela, jakinez eskuhartze funtsak jadanik eskuratu direla. Azpimarratu du terreno bat ez litzatekeela erosi behar lur-funts erreserba baten osatzeko, eta orain arte ez dela batere aitzinamendurik izan.

Auzapezak erantzun du eskuhartze funts horiek Errobi herri elkargoan kapitalizatutako diruaren itzulera izan zirela, Euskal Elkargoa sortu zenean Kanbori itzuli beharrekoak. Eskuhartze funtsei dagokienez, zehaztu du arau oso zorrotzak daudela funts horien esleitzeko, eta ez dela urtero sistematikoki dirua ukateko dispositibo bat. Gehitu du Errobiko beste herri batzuek ere eskuhartze funts horien itzulera izan dutela.

Nathalie Aïçaguerre andereak azpimarratu du, beste herriek 2016ko eskuhartze funtsak eskuratu eta proiektuak gauzatu dituztela, baina Kanbon lurrak baizik ez direla erosi.

Auzapezak erantzun dio ez direla nahasi behar hasierako funtsak zeinak Tillac terrenoen erosteko baliatu baitziren eta beste proiektu batzuentzako funtsak, hala nola tenis estaliak, zeinak eskuhartze funts klasiko bidez diruztatu baitziren Errobi eremuko herrien artean banaturik.

Argitxu Hiriart-Urruty anderea berantetsia dela adierazi du, zeren sei edo zazpi urteko tira biren ondotik ez baita arrapostu zehatzik Tillac terrenoei buruz. Adierazi du gauzak ez direla argitu, eta badirudiela PAHAk proposatzen zaiona gauzatu baizik ez duela egiten, informazio argirik eman gabe.

Auzapezak erantzun dio PAHAk ez duela besterik gabe gauzatzen, hautetsiek izanen dutela inizitiba lur horietan egin nahiko diren ekintza konketuak zehaztuko direnean.

014 – Turismo Bulegoa: 1. kategoriako sailkapenaren eraberritzea.

ERABAKIA:

Irastorza jaunak oroitarazi du 2016ko abenduaren 26ko 26-12-2016-001 erabakiaren bidez Kanboko Herri Biltzarrak «turismoaren sustapena, besteak beste turismo bulego baten sortzea» eskumena atxikitzea erabaki zuela 2017ko urtarrilaren 1etik goiti.

Kanbo «turismo-gune» sailkatua izan zen 2015eko urtarrilaren 28an Frantziako ministerio-ordenantza bidez. «Turismo-gune» sailkapena 12 urterako ematen zaie bikaintasunezko jomuga izateko egituratu diren «turismo herriei».

Sailkapen hura luzatzeko (2027ko urtarrilaren 27tik goiti) herriak 1. kategorian sailkatutako turismo bulegoa beharko du.

Alta, turismo bulegoa 2025eko otsailaren 27a arte 1. kategorian sailkatua denez, sailkapena eraberritu behar da.

Irastorza jaunak proposatu du sailkapena eraberritzea.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari Pirinio Atlantikoetako Prefetari Turismo Bulegoaren 1.kategoriako sailkapena luzatzea eskatzeko;

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Jean-Paul Alaman jaunak 1. kategoriak bertako bizian duen eragina oroitaraztea eskatu du. Zalantzak ditu sailkapen horren eragin konkretuez, eta galdetu du ea posible denetz beste kategoria batekiko eraginak neurtzea. Jakin nahi luke ere zer eskatzen zaion herriari sailkapen horren ukateko, eta exigentzia horiek zenbateraino betetzen diren.

Auzapezak azaldu du helburua dela turismo-gunearen kalitatea bermatzea, eta horretarako herriak "turismo-herri" izaten segitu behar duela. Horretarako ezinbestekoa da turismo bulegoa 1. kategorian sailkatua izan dadin.

Didier Irastorza jaunak azaldu du 1. kategoriako sailkapena ziurtagiri baten antzekoa dela, herriaren estatus ofiziala adierazten duena. Sailkapen hori garrantzitsua da, bereziki Kanborentzat, termen inguruko jarduera dela-eta, eta eskaera asko eragiten duela. Zehaztu du zein inportantea den turismo bulegoak zuzendari bat ukatea, eta sailkapen horrek kalitate goreneko maila atxikitzea ahalbidetzen duela, Angelu, Biarritz eta Hendaian bezala. Zehaztu du "turismo-gune" terminoak lehengo "terma-gune" edo "bainu-gune" sailkapenak ordeztzen dituela.

Amaia Beyrie andereak zehaztasunak eskatu ditu 1. kategorian sailkatzeko exigentziei buruz, besteak beste igandeetan irekia izateko beharraz.

Didier Irastorza jaunak azaldu du 1. kategorian sailkatzeak ez duela behartzen igandeetan zabalik izatea, salbu udan eta ekitaldi berezi batzuentzat. Zehaztu du irizpideetan sartzen direla gutxieneko ordutegi bat, langileria, irisgarritasuna, baita ingurumen arloko hondakinen bilketa, mugikortasunak, Prefekturak ematen dituen beste ziurtagiriek.

Peio Etxeleku jaunak galdetu du ea Baionan ezarri den itun hibridoaren ondorioak, onurak eta kalteak, aztertu diren eta eredu horrek Kanborentzako balio lezakeen.

Auzapezak erantzun dio Baionako itun hibridoa Baionarako baizik ez dela Euskal Elkargo osoan. Azpimarratu du Kanborentzako helburua dela turismo bulegoa eta herriaren irudia herriaren esku izatea, baita merkataritza ospea nazio eta nazioarte mailatan. Zehaztu du herriak inbertsio handiak egin dituela 1. kategoria eskuratzeko, baina Euskal Elkargoarekin harremanak atxikiz.

Argitxu Hiriart-Urruty xehetasunak eskatu ditu egin diren inbertsioei buruz.

Auzapezak erantzun dio turismo bulegoarekiko hiru urteko hitzarmen bat badagoela non eraikinean egin beharreko lanak eta informatikan egin beharreko inbertsioak aurreikusten diren, eta dokumentu hori eskura duela.

015 – Eссор Cycliste Basque lasterketa: 2025eko hitzarmena.

ERABAKIA:

Irastorza jaunak, Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea 2025eko Eссор Cycliste Basque lasterketaren antolatzeke izen bereko elkartearekin hitzarmenaren izenpetzeko:

Lasterketaren nondik norakoak:

Eссор Basque eliteko lasterketa irekia 2025eko otsailaren 2an izanen da. Abiatzea 14etan izanen da Kanboko Edmond Rostand hiribidetik eta 25 km-ko itzulia egingen ditu Ezpeleta, Zuraide eta Uztaritzetik pasatuz.

Bukatzeke, tropelak 7 km-ko azken itzulia egingen du Kanbon, Arnagatik pasatuz.

Dirulaguntza eskaera: 3 500 €

Abiatzea eta helmuga: Kanbo, Sorhainde plaza parean, Edmond Rostand hiribidean.

Irastorza jaunaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari Eссор Cycliste Basque elkartearekin 2025eko otsailaren 2an iraganen den «Eссор itzulia - Eliteko lasterketa irekia» lasterketaren antolatzeke hitzarmenaren izenpetzeko,

ERABAKI DU, Eссор Cycliste Basque elkarteari 3 500 €ko diru-laguntza ematea.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari horretarako izapide oro egiteke eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du zenbatekoa zen iragan urteke diru-laguntza.

Didier Irastorza jaunak erantzun dio iaz helmuga baizik ez zela Kanbon, eta ondorioz laguntza 2 000 €koa zela.

016 – Errobi kolegioa: dirulaguntza baten isurtzea.

ERABAKIA:

Aristizabal andereak adierazi du, 2024ko uztailaren 8ko gutun bidez, Errobi kolegioak herriari laguntza bat eskatu diola memoria historikoari buruzko bidaia pedagogikoa egiteko «lehorreratzeko hondartzetara».

Bidaia 2025eko martxoaren 10etik 12ra egingen dute 3.eko 80 ikaslek.

Proposatu du Errobi kolegioari 1 000€ko diru-laguntza eskaintzea jakinez bidaia ikasle bakoitzeko 360 € kostatzen dela.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Errobi kolegioari 1 000 €ko diru-laguntza eskaintzea 3.eko ikasleen bidaia pedagogikoarentzako.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

017-A – Hondamendi naturala pairatu duen ETSAUT herriari diru laguntza.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

2024ko iraileko eguraldi hondamendiak Frantziako Pirinio Atlantikoetako Aspe haranean kalte izugarriak eragin zituen. Haran horretako zenbait herri isolatu larriki kaltetuak izan dira, lur erortze eta luizien eraginez. Azpiegiturak, etxebizitzak eta bertako biztanleen eguneroko bizia oso kaltetuak izan dira.

Klima-hondamendi horiek agerian uzten dute zein kalteberak diren gure lurraldeak halako kasuetan. Kaltetutako herriak maiz egoera larrian gertatzen direnez material eta finantza arloetan, ezinbestekoa da ahal bezain laster ekitea jarduerak berriz has daitezen eta biztanleen onerako.

Elkartasun espiritu batekin, kaltetutako herri baten alde ez ohiko diru-laguntza ematea komeni da.

Laguntzak honako helburuak lituzke:

- Azpiegitura publikoen berregiteko lanak laguntzea (errepideak, eskolak, kirol ekipamenduak, eta abar.).
- Familiak beren etxebizitza konpontzen laguntzea, bizi-esparru osasuntsua berreskura dezaten.
- Kaltetutako herriaren jarduera ekonomikoaren berrabiatzea erraztea tokiko ekimenei esker.

Herriaren aurrekontu egoera ikusirik, Auzapezak proposatu du 1 000 €ko diru-laguntza esleitzea ETSAUT herriari.

2024ko iraileko hondamendiak kaltetu herri bati diru-laguntza emanez, Kanbok herrien arteko lankidetzeta eta elkartasunaren aldeko engaiamendua berretsiko luke, halako egoeretan beharrezkoa den erresilientzia espiritua azpimarratuz.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU Aspe haraneko herri kaltetu bati ez ohiko diru-laguntza ematea,

ONETSI DU ETSAUT herriari diru-laguntza ematea,

ONETSI DU 1 000 €ko diru-laguntza ematea eta aurrekontuan kredituak sartzea.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

017-B – Hondamendi naturala pairatu duen LETUR herriari diru laguntza.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Albistegietan eta hedabideetan luze eta zabal aipatu dira Espainiako Valentzia eskualdean izan diren hondamendiak 2024ko urrian.

Aro txarrak eragin kalteek bertako azpiegiturak eta bertakoen eguneroko bizia kaltetu dituzte. Errepideak, bizilekuak eta ekipamendu publikoak gogorki kaltetuak izan direnez, biztanleriaren egoera are larriagoa da. Valentzia hego-ekialdeko LETUR herri turistiko txikia (1000 biztanle) izan da kaltetuenetako bat .

Azken urteetan Kanbok elkartasun ekintzak egin izan ditu (Siria, Ukraina, ...) eta gaur egun ezinbestekotzat jotzen du halako hondamendiak jasan dituen herri bati laguntza eskaintzea.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L1115-1 artikulua arabera, Frantziako tokiko erakundeek eta beren elkargoek ez dute baitezpada hitzarmenik egin behar kanpoan ekintzak egiteko. Ekintza horiek zuzenekoak izan daitezke ala ez. Diru-laguntza edo lankidetzak izan daiteke, urgentziazko laguntza baten esparruan atzerriko tokiko aginteen alde. Ondorioz, Kanbok laguntza hori zuzenean eman dezake.

Horiek horrela eta herriaren engaiamendu humanitarioaren baitan, Auzapezak proposatu du 2 000 €ko ez ohiko diru-laguntza eskaintzea LETUR herriaren berreraikuntza eta bertako biztanleak laguntzeko.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU LETUR herriari ez ohiko diru-laguntza bat ematea,

ONETSI DU diru-laguntzaren zenbatekoa 2 000 €koa izanen dela LETUR herriaren beharrei erantzuteko, eta kredituak aurrekontuan sartzea,

ONARTU DU diru-laguntza horren modalitateak finkatu dituen hitzarmen bat idaztea Espainiako LETUR herriko aginteekin harremanetan sartuz,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

018-A – Langileria: elektrikari enpleguaren moldatzea.

ERABAKIA:

Zerbitzu teknikoetako langile batek erretreta hartu duenez, Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio 2010eko ekainaren 21eko zerbitzu teknikoetako langile polibalente postu bat irekitzeko erabakia osatzea enplegu hori lurraldeko langile arduradunei eta lurraldeko teknikari laguntzaileei irekitzearekin eta kontratupekoak hartzeko ahalmenarekin.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela osatu eta eguneratuko litzateke:

Enplegua: Zerbitzu teknikoetako langile polibalentea.

Dagozkion graduak:

- Talde arduradunak
- Talde arduradun nagusia
- Teknikari laguntzailea
- 2.klaseko teknikari laguntzaile nagusia
- 1.klaseko teknikari laguntzaile nagusia

Kategoria hierarkikoa: C

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora : 35 oren

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-14 artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko-administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,
- baimen berezi gisa, kontratupeko langile bat kontratatuz, Frantziako funtzio publikoaren kodeko L.332-14 artikulua arabera, zeinak baimentzen baitu kontratupeko langileak kontratatzea funtzionario bat kontratatu bitartean hutsik den lanpostu baten betetzeko.

Orduan, lan kontratua mugatua izanen da eta gehienez urte batekoa. Iraupena luzatzen ahalko da, gehienez orotara 2 urtera, funtzionario bat kontratatzeko prozedurak emaitzarik eman ez badu.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 478 arteko indize emendatua izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde animazio laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU

- laguntzaile teknikari eta talde arduradun graduak gehitzea zerbitzu teknikoetako langilearen enpleguarentzat,
- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 478 arteko indize emendatua izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

018-B – Langileria: finantza-arduradun enpleguaren moldatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio 2014ko urtarrilaren 27ko erabakiz denbora osoko eta 1. klaseko erredaktore nagusi lan postu iraunkorra sortu zela finantza-arduradun eginkizuna betetzeko.

Langile berri bat kontratatzeko, postuaren eginkizunak kontuan izanik, Auzapezak proposatu du lan postu horri honako mailak eranstea: 1. klaseko administrazio laguntzaile nagusia (C kategoria), erredaktore enpleguetako beste graduak (B kategoria) baita arduradun ("attaché") gradua ere (A kategoria).

Asteko lan denboraldia denbora oso batean mantentzen da.

Enplegua A, B edo C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen litzateke:

Enplegua: Finantza arduraduna

Dago(z)kion gradua(k)	Kategoria hierarkikoa:
1.klaseko administrazio laguntzaile nagusia	C
Erredaktorea	B
2. klaseko erredaktore nagusia	
1. klaseko erredaktore nagusia	A
Arduradunak (attaché)	

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-8 2º artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko-administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,
- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2º artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke, funtzioen izaerak eta zerbitzuaren beharrek justifikatzen badute, eta ezin izan bada funtzionariarik kontratatu, mugikortasun bidez edo konkurtsoa lortu duten berrien artean,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitekeen hiru urteko iraupenekoak izan behar dira, hots gehienez sei urte segidan. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 373 eta 508 arteko indize emendatua izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, beteko dituen funtzioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU

- finantza arduradun enpleguari 1. klaseko administrazio laguntzaile nagusi gradua, lurraldeko erredaktore enpleguetako beste graduak eta lurraldeko arduradun graduak gehitzea,
- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 373 eta 508 arteko indize emendatua izanen lukeela.

<u>BAIMENA EMAN DIO</u>	Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.
<u>ONARTU DITU</u>	Auzapezaren proposamen guztiak,
<u>ZEHAZTU DU</u>	kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

HITZ HARTZEAK:

Peio Etxeleku jauna erabaki horretaz baliatu da Sébastien Guber-i goresmenak adierazteko haren inplikazioa, engaiamendua, diskrezioa eta profesionaltasuna gorai patuz.

Eliane Aizpuru andereak berretsi du berak ere gauza bera errateko asmoa zuela, bereziki finantzetarako hautetsi gisa erregulariki lanean ari baitzen harekin.

Auzapezak ere aitortza osoa adierazi dio Sébastien Guber jaunari halaber seinalatuz deitoratzen duela Kanboko kontularitza zerbitzutik joaten dela. Haren lanerako gaitasuna eta Eliane Aizpurrekiko lankidetzaren eraginkorra azpimarratu ditu. Auzapezak Éric Saint-Martin ere eskertzen du elektrikari gisa izan duen gaitasuna eta profesionaltasunagatik. Adeitsuki azpimarratu du Ericek halere Kanboar izaten segituko duela.

018-C – Langileria: komunikazio arduradun eta idazkaritza orokorreko enpleguaren moldatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio 2022ko martxoaren 28ko erabakiz komunikazio kargudun eta idazkari orokorreko eta denbora osoko enplegu iraunkor bat sortu zela.

Postuaren funtzioak kontuan izanik, Auzapezak proposatu du lanpostu horri lurraldeko administrazio laguntzaile enpleguaren graduak (C kategoria) eranstea.

Asteko lan denboraldia denbora oso batean mantentzen da.

Enplegua A, B edo C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela osatu eta eguneratuko litzateke:

Enplegua: Komunikazio kargudun eta idazkari orokor.

Dago(z)kion gradua(k)	Kategoria hierarkikoa:
Administrazio laguntzaile	C
2.klaseko administrazio laguntzaile nagusia	
1.klaseko administrazio laguntzaile nagusia	
Erredaktorea	B
2. klaseko erredaktore nagusia	
1. klaseko erredaktore nagusia	
Arduradunak (attaché)	A

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-8 2º artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte,

departamendu, herri eta horien erakunde publiko-administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,

- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2º artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke, funtzioen izaerak eta zerbitzuaren beharrek justifikatzen badute, eta ezin izan bada funtzionariorik kontratatu, mugikortasun bidez edo konkurtsoa lortu duten berrien artean,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitekeen hiru urteko iraupenekoak izan behar dira, hots gehienez sei urte segidan. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 508 arteko indize emendatua izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, beteko dituen funtzioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU

- administrazio laguntzailearen gradua gehitzea komunikazio kargudun eta idazkari orokor enpleguari,
- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 508 arteko indize emendatua izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

019 – Langileria: kontratupekoen kontratatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio tokiko erakundeetako enplegu iraunkorrak normalean langile titularrek bete behar dituztela. Printzipio hori zalantzan eman gabe 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 frantses lege moldatuak lurraldeko funtzio publikoaren estatu xedapenei buruzkoa, eta Frantziako funtzio publikoaren kode orokorrak aukera ematen dute kontratupekoak kasu mugatu batzuetan kontratatu ahal izateko.

Zerbitzuaren jarraitasunerako beharrek justifika dezakete langile ez iraunkorrak kontratatzea jardueraren behin behineko emendatze bati aurre egiteko edo lurraldeko funtzionario bat kontratatu bitartean langilerik gabe gelditu den postu baten betetzeko.

Ondorioz:

- Frantziako funtzio publikoaren kode orokorraren L. 332-13 artikulua aurreikusten du kontratupeko langileak kontratatzea lurraldeko langile publikoak behi-behinean ordeztzeko (funtzionarioak eta kontratupekoak) enplegu iraunkor batean,
- Frantziako funtzio publikoaren kode orokorraren L. 332-14 artikulua aurreikusten du kontratupeko langile batek bete dezakeela enplegu iraunkor bat, postua behin-behinean hutsik gelditu bada eta funtzionario bat kontratatu bitartean,

- Frantziako funtzio publikoaren kode orokorraren L. 332-23 artikulua baimentzen du enplegu ez iraunkorretarako kontratupeko langileak kontratatzea jardueraren behin-behineko emendatze bati ihardesteko.

Gure erakundearen zerbitzu publikoaren jarraitasun beharrak justifikatu dezake lurraldeko funtzionarioak edo kontratupekoak fite ordeztzea honako arrazoi batengatik osoki ala partzialki ezin badute beren postua bete:

- denbora partziala edo denbora partzial terapeutikoa,
- urteko oporraldiak, erialdia, erialdi larria, erialdi luzea, amatasun edo adopzio oporraldia, guraso-oporraldia edo guraso-presentzia, familia-elkartasunerako oporraldia,
- zerbitzu zibil edo nazionala bete beharra, armadara deitua izatea, erreserbista jardueretan parte hartzea
- iraupen laburreko kanpo zerbitzaldia,
- aginduz, eskubidez edo familia-arrazoiengatik emandako iraupen laburreko disponibilitatea,
- ikastaro bat egiteko edo titular izan baino lehen egin beharreko ikasketen egiteko kanpo zerbitzaldia, funtzionario postua betetzeko edo funtzio publikoko enplegu baterako lehiaketa bat prestatzeko,
- zerbitzuari egotzi dakioken behin-behineko ezintasun batengatik geldialdia (C.I.T.I.S.),
- lurraldeko funtzio publikoko langileei legez onar dakioken beste edozein oporraldi edo geldialdi (formakuntza...).

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari Frantziako funtzio publikoaren kode orokorraren L. 332-13, L. 332-14 eta L. 332-23 artikuluetako baldintzetan kontratupekoak kontratatzeko, behin-behinean lanean ez dauden funtzionarioak edo kontratupekoak ordeztzeko, jardueraren behin-behineko emendatze bati aurre egiteko edo enplegu iraunkorrak behin-behinean hutsik daudenean.

Auzapezak du erabakiko zein mailatan eta zer soldatarekin kontratatuko dituen hautagai hautatuak beren funtzio, esperientzia eta profilararen arabera.

020 – Euskal Elkargoa: ur edangarria eta saneamenduari buruzko 2023 RPQS txostena.

ERABAKIA:

Goytino jaunak honakoa azaldu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko D2224-1 eta ondorengo artikulua segituz, Auzapezak ur edangarriaren zerbitzu publikoaren prezioei eta kalitateari buruzko urteko txostena aurkeztu behar dio Herri Biltzarrari Etxe-hondakinekin bezala, saneamendu zerbitzuarentzako, kolektiboa ala banakakoa izan, gauza bera egin behar du.

Kanbo herriak ur edangarriaren hornikuntzaren kudeaketa (UEH/AEP) saneamendu kolektiboarena (SK) eta saneamendu indibidualarena (SI) Euskal Hirigune Elkargoaren esku utzi zuen 2018ko urtarrilaren 1etik goiti, Herri Biltzarraren 2017ko azaroaren 4ko erabaki baten ondotik.

Euskal Elkargoaren uraren zikloaren kudeaketaz arduratzen da, sorgitik txorrotara, Ipar Euskal Herriko 158 herrietan. « Gure Ura, l'eau du Pays Basque » markarekin, erabilgaitzak guzietatik hurbil diren zerbitzu eraginkorrak eskaintzera engaiatzen da. Pertsonen osasuna eta ingurumena zaintzea du helburu, eta koherentzia asmo batekin uraren kalitatea lurralde osoan berdina izateko xedea du «jakitateak uztartuz». Honako puntuetan ezartzen du arreta berezia:

- Ur baliabidearen zaintzea;
- Biztanleriarentzako zerbitzuen eraginkortasuna bermatzea;
- Lurraldearen ezagutza sakontzea eta partekatzea.

2024ko irailaren 28ko erabakiz, Elkargoko batzorde nagusiak bere uraren zerbitzuak egin 2023ko txosteneko xedapenak eta formalitateak aintzat hartu zituen. Honakoak jorratzen ditu txostenak:

- Zerbitzuaren ezaugarri teknikoak;
- Ur edangarriaren salneurriak, saneamendu kolektiboa eta indibiduala, eta zerbitzuen diru sarrerak;
- Eraginkortasun-adierazleak;
- Inbertsioen finantzazioa;
- Uraren alorreko elkartasun eta lankidetzaren deszentralizatuko ekintzak.

Txostena elkargoko herri bakoitzari helarazi zaio, Herri Biltzarretan aurkeztua izan dadin, berantengatik kontularitza ekitaldia bukatu eta 9 hilabetera.

Ikuspegi horrekin, ur eta saneamendu zerbitzu publikoaren zerbitzuen kalitateari buruzko txostenak 2023an egin diren ekintza eta gauzatzeen ebaluazioa argitzera dator. Kanbori dagokionez, honako elementuak ematen ditu:

I. FINANTZA ALORREAN

1. Ur edangarriaren hornikuntza

Kanbo hornitzeko urak honako sorgietatik heldu da:

- Ursuiako sorgia;
- Latseko sorgia;
- Larresoroko Errepera zulaketa;
- Luhusoko zulaketa.

Nolazpait errateko, Kanbon banatua den uraren %50 Latsia/Ursuiako sorgietatik eta beste %50 Erreperatik heldu da. Luhusoko ura gehigarri txiki gisa baliatzen da (3 000 m³ baino gutxiago).

3. sektorea: Errobi-Aturri/Errobi

Sektorean **urtero 3 milioi m³ fakturatu dira**; Kanbori dagokionez: 811 932 m³ (%47 partikularrak, %46 profesionalak eta %7 tokiko erakundeak)

Uraren kalitatea: Kanbon banatzen den urak kareharri gutxi du eta mineralizazio apalekoa da. Mikrobiologia eta fisika-kimika terminoetan irizpideak %100ean betetzen ditu.

Ur edangarriaren prezioa 2023an: 1,9331 € ZB/m³ (lau pertsonako etxebizitza batentzako urtean 120 m³, parte finkoak barne). 2022an 1, 8682 € ZB/m³-koa zen, hots %3.47ko emendatzea. Emendatzea Zerbitzu Publikoko Delegazio-kontratuan aurreikusi diren prezio indizeen eguneratzearen ondorio dira. Indizeok automatikoki aplikatzen dira eta delegazio-esleipendunaren (SUEZ) parte igoarazten dute.

2. Saneamendu kolektibo eta ez-kolektiboa

Harpidetuak: 3 409 saneamendu kolektiboarentzat, honela banaturik: 3 157 norbanako, 234 profesional eta 18 tokiko erakunde saneamendu kolektiboko sareari lotuak;

46.70 km-ko sarea, araztegi 1ekin eta 17 kanporatze-estazio;

Honako **ur kantitateak tratatu dira:** 626 507 m³ eta sareko 5,6 km garbituak;

2023ko **ur tratatuaren prezioa:** 2,9517 € ZB/m³ (lau pertsonako etxebizitza batentzako urtean 120 m³, parte finkoak barne). 2022an, 2,4112 € ZB/m³, hots %22,42ko emendatzea.

Metro kuboko prezioa: 4,88 €/m³ (parte finkoa eta zergak barne) 2023an, lehenago 4,28 €/m³-tan zen, hots %14,03ko emendatzea.

2 heldu eta 2 hurrez osaturiko 4 pertsonako etxebizitza batentzat eta 120 m³ko kontsumo batentzat, parte finkoak barne, ur eta saneamendu faktura urteko 585,60 €koa da, zergak barne.

II. ALDE TEKNIKOTIK ETA EUSKAL ELKARGOAREN EGITASMOAK

1. Ur edangarriaren hornikuntza

Ekipamenduak erregulariki kontrolatzen dira ongi ibiltzen direla egiaztatzeko: balizko itokinen detektatzea, funtzionamendu okerrak. Kasuan kasu, mantenu edo konponketa lanak egiten dira.

Etorkizuneko beharren analisiak eta aurreikusteak batetik, eta ur edangarriaren hornikuntzaren jarraikortasuna bermatzeak bestetik, izan kalitatearen nola kantitatearen aldetik, ondare horrentzako inbertsio politikan eragin zuzena dute: hedapen eta berritze lanak, tratamendu sailen egokitzea, Euskal Elkargoko alerta sistemak eta etengabeko diagnostikoa.

3. sektoreari dagokionez, txostenak Marieniako biltegitratze-ontzien erreabilitazio lanak aipatzen ditu.

2. Saneamendu kolektibo eta ez-kolektiboa

Sareen prebentziozko mantenuari esker bilketa hobeki kudeatzen da. Ustiatzaileen eskura diren ekipamenduen kalitateaz eta horien mantenuaren egokitzeko beharraz jabetzeko badira hainbat adierazle.

Etengabeko diagnostikoa arriskua kontrolatzeko dispositiboa da, zeinak ustiaketa eta inbertsio programaren norabidea finkatzen baitu, saneamendu sistemak isurtze ingurunean duen inpaktua murrizteko. Maiztasuna gutxienez urtean behinekoa da.

Goytino jaunaren azalpen osagarriak entzunik, Herri Biltzarrak aho batez:

AINTZAT HARTU DU, ur edangarriaren eta saneamendu zerbitzu publikoaren prezioei eta kalitateari buruzko 2023ko txostena.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak zehaztu du Kanbon banatzen den ura Kanbo eta Baionako auzapezek, hots Vincent Bruk eta Jean Grenetek, adostu akordio baten arabera teorikoki Latseko eta Ursuiako sorgietatik heldu dela. Gehitu du, pozten dela Euskal Elkargoak 450 000 €ko lanak eginen baititu Marienia sektorean.

Peio Etxeleku jaunak erran du uraren prezioen emendatze bat izanen dela entzun duela 2025 hastapenerako, eta galdetu du ea Kanbon ere hala izanen den.

Eliane Aizpuru andereak erantzun dio uraren prezioen harmonizazio bat izanen dela 2027ko urtarrilaren 1etik goiti.

Auzapezak zehaztu du, 2027an aurreikusten den uraren prezioen harmonizazio horretaz gain, %27,18ko emendatze bat izanen dela heldu den urtean, baina emendatze horrek fakturaren proportziozko zatiari eraginen diola.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du emendatze horren zergatia zein den.

Auzapezak erantzun dio Euskal Elkargoak ez duela inolako justifikaziorik eman. Bere ustez, uraren zerbitzuaren kontuak orekatzeko erabakia izan da.

Peio Etxeleku jaunak ohartarazi du Kanbon prezioak jadanik gora direla, Ipar Euskal Herriko beste herri batzuen aldean.

Auzapezak erantzun dio Kanbok prezio oso neurtua izan duela saneamenduarentzat baina gero eskumen hori galdu duela. Zehaztu du ur edangarriaren ekoizpenarekin gertatzen den ez bezala, herria borrokatu zela saneamendu eskumena atxikitzeko, baina tamalez galdu du eta 1,5 milioi euroko etekina eman behar izan duela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea urari buruzko elkarrizketak Euskal Elkargoan ematen diren ez.

Eliane Aizpuru andereak adierazi du ez dela eztabaida berezirik izan uraren prezioari buruz. Finantza elementuak aurkeztu dira, besterik gabe.

Peio Etxeleku jaunak azaldu du iaz eztabaida izan zela prezioen harmonizazioari buruz, urte anitzeko aurrekontuko gastu gisa har zitezela, ur beharrei erantzuteko eta lurraldeen arteko etekin eta defiziten kudeatzeko. Haatik, gehitu du beretzako uraren prezioaren emendatzea sorpresa izan dela, ez baita eztabaidatu, eta iturri informaletatik izan duelako horren berri.

Auzapezak zehaztu du uraren prezioen emendatzea Errobi eremuko auzapezen azken bulegoan aurkeztu zela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak aipatu du bereizi beharko liratekeela bizi-beharrentzako ura (edatekoa eta garbitzekoa) eta behar osagarrientzako ura (igerilekua betetzeko edo golf zelaiak ureztatzeko).

Eliane Aizpuru andereak erantzun dio elkarrizketak izan direla lehenago elkartasunezko salneurrien ezartzeko, bereziki familia zaurgarrientzat, eta jadanik hartu diren laborarien aldeko zenbait salneurri berezi.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak salneurri sozialei buruz galdetu du. Horretarako zerga aitortpenik aurkeztu behar denetz galdetu du, zehazturik ez duela sekula halako neurriren berririk izan.

Peio Etxeleku jaunak azaldu du ez dela segur herri guzietan egiten dutenetz salneurri sozialik, baina kasik segur da Baionak egin duela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea salneurri sozialak herriaren eskumenekoak diren ez.

Peio Etxeleku jaunak erantzun dio Euskal Elkargoak duela hori kudeatzen, edo haren delegazioz ari denak, halakorik baldin bada. Zehaztu du Baionak egitura kudeatzailea duela horretarako eta ondorioz desberdinki kudeatzen dutela. Aipatu du, baita ere, Ipar Euskal Herriko delegazio kontratu guztiak 2026 edo 2027an burura helduko direla, eta horrek pausatzen duen galdera da ea herriek egitura kudeatzaile baten bidez kudeatuko dutenetz ala delegazioan emanen duten.

Auzapezak azaldu du Baionaren kasuan salneurri sozialak ezartzeko errazago dela historikoki duen antolaketari esker, hots egitura kudeatzailea duelako, erran nahi baita zerbitzu dedikatuak eta behar den informazioa eta tresnak badituela. Kanbon, ordea, egoera desberdina da. Azpimarratu du salneurri soziala ezartzea askoz konplexuagoa litzatekeela, bereziki Euskal Elkargoak ezarri nahi duen salneurri bateratuekin.

Eliane Aizpuru andereak biltzarkideei proposatu die Euskal Elkargoko azken saioko 53. solasgaia ikustea, non azaltzen baitira ur eta saneamendu zerbitzuaren gainean eragiten ari diren finantza presioen emendatzea, 2023ko bilakaerak salbuetsita. Dokumentuak azaltzen du prezioak 2025eko urtarrilaren 1etik emendatuko direla, ur edangarrian eta saneamenduan. Ohartarazi du halere aldea ikusten duela txostenetako salneurrien eta berak bere fakturan dituen artean, azpimarratuz ura gero eta garestiago dela.

Auzapezak uste du elkargoko biltzarkideek arranguratu beharko luketela uraren prezioen %27,18ko emendatzeaz, gehiegizkoa iruditzen baitaio. Aipatu du, ere, uraren jokagaiez gero eta kontzienteago garela, bereziki idortek gertatzen direnean, eta uste du epera logikoa litzatekeela, behin harmonizazioa pasatu-eta, arrangura sozialei erantzuteko salneurri bereziak ezartzea.

021 – Euskal Elkargoa: hondakinen kudeaketari buruzko 2023 RPQS txostena.

ERABAKIA:

Goytino jaunak honakoa azaldu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2224-17-1 artikulua Auzapezak herri arteko lankidetzarako erakundeetako lehendakariak behartzen ditu etxe hondakinen eta antzekoen prebentzio eta kudeaketa zerbitzu publikoaren kalitateari eta prezioari buruzko txostena aurkeztera urtero.

2024ko irailaren 28ko saioan, Euskal Hirigune Elkargoko batzorde nagusiak 2023ko txostena aztertu zuen.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko D.2224-3 artikulua arabera, Auzapezak txosten hori aurkeztu behar dio bere Herri Biltzarrari, saiorik hurbilenean.

Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa Zerbitzu Publikoaren 2023ko txostenaren oharra.

Ohar honek Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean etxeko hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruzko 2023ko txostenaren irakaspen nagusiak laburbiltzen ditu. Aurten aitzinamenduak eman dira hondakinen bereizketa eta balioztatzearen arloan, eta hondakinen kudeaketa jarduerak ingurumenean dituen eraginak murrizteko ekimenei esker.

Zenbaki nagusiak

2023an bilketa zerbitzu publikoak 191 307 tona etxeko hondakin bildu eta tratatu ditu, hots 2022rekiko 6 000 tona gutxiago.

Batez beste, biztanle bakoitzak 594 kg hondakin ekoiztu du, eta horietatik %69 plataforma eraginkorretan balioztatu dira.

Zenbaki horien lortzeko 25 hondakindegiz, 10 lurralde eremutan banatuak, 337 langile titularrez eta bereizketaren 17 enbaxadorez osatutako sarea dugu.

Zerbitzuaren gastu orokorra 52,5 milioi eurokoa da. Etxeko Hondakinen Bilketa Zergak du nagusiki zerbitzua finantzatzen, harmonizazio bidean den Zerga Bereziak osaturik.

Ekintza eta Ekimen nagusiak

Hainbat ekintza egituratzaile burutu dira 2023an hondakinen kudeaketa hobetzeko eta erabiltzaileen sentsibilizatzeko:

1. **Bereizterako kontsignen hedatzea:** 2023ko urtarrilaren 1etik, enbalaje eta paper guztiak soltean isur daitezke edukiontzi berean. Erreforma horri esker, birziklatuen kopurua anitz emendatu da eta biztanleentzako bereizketa errazten du.
2. **Janari xahuketaren kontrako borroka:** arreta berezia eman da eskoletako jantokietan sentsibilizatzeko. Proiektuan parte hartu duten 14 ikastetxeetako zenbakiak hartuz; batez beste pertsona bakoitzeko 137 gramoz murriztu da janari xahuketa.
3. **Hondakin organikoen jatorrizko bereiztea:** 2024etik jatorrizko bereizteko betebeharrari aurrea hartuz, konpost kolektiboa egiteko ekimenak azkartu dira etxebizitza kolektiboetan eta auzoetan.
4. **Tokiko eragileen sentsibilizazioa:** zerbitzuak turismo arloko 41 profesionali (hotelak, jatetxeak, kanpinak,...) eta turismo bulegoetako 49 harrerako langileri formakuntza eskaini die hondakinen bereizteko jardunbide egokiak emateko. Gainera, hondakindegietako gida praktikoa ere argitaratu da erabiltzaileek bereizte eta balioztatze modalitateen berri ukan dezaten.

Hondakinen kudeaketa eta balioztatzea

Egin den kudeaketa ahaleginari esker, hondar-hondakinen proportzioa murriztu da (bilketa osoaren %43). Hondakin balioztatuak egitura modernoetan lantzen dira, hala nola:

- Baionako Canopia balioztatze energetiko eta organikorako unitatea, non konposta, elektrizitatea eta beroa ekoizten diren.
- Sarrikotapeko Mendixka balioztatze organikorako unitatea, konposta ekoizten duena.

Paraleloan, Bil ta Garbi sindikatuak biltegiatze gune zaharren segipena egiten du toki horien ingurumen segurtasuna bermatzeko.

Perspektibak

Zerbitzuak etengabeko hobetze dinamika segitzen du datozen urteetarako proiektu eta helburuekin:

- **Zerga Bereziaren harmonizazioa:** profesionalentzako zerga berezia pixkanaka hedatuko da lurralde osora.
- **Ingurumen-eraginkortasuna:**
 - Gogoeta bat abian da bilketa-ibilgailuen motorizazioari buruz, beren karbono aztarna murrizteko.
 - Halaber, bilketa ibilbideen hobetze lanak ere aurreikusten dira tresna digitalen bidez.
- **Hondakindegien modernizazioa:** lehen tasun bilakatu dira bereizte eta balioztatze sail berrien garapena eta berrerabilpenaren sustapena.
- **Lan-taldeen laguntzea:** arreta berezia ezartzen dugu langileengan, bereziki formakuntzen bidez eta lan baldintzak hobetuz.

Ondorioz:

2023ko txostenak hondakinen prebentzio eta kudeaketa zerbitzu publikoak egin dituen aitzinamendu nabarmenak agerian ematen ditu. Emaizta horiek ekintza-eraginkortasuna, araudien errespetua eta ingurumenaren geriza uztartzeko borondatearen isla dira. Sentsibilizazio ekintzek, azpiegitura modernoetan egin diren inbertsioekin batera, datozen urteetan hondakinen kudeaketa eraginkorragoa eta jasangarriagoa izanen dugula pentsarazten digute.

Goytino jaunaren aurkezpena eta azalpen osagarriak entzunik, Herri Biltzarrak aho batez:

AINTZAT HARTU DU, etxe-hondakinen eta antzekoen prebentziorako eta kudeatzeko zerbitzu publikoaren prezioei eta kalitateari buruzko 2023ko txostena.

HITZ HARTZEAK:

Jean-Pierre Gogny jaunak Harizkazuia bidean eta Kanboko beste zenbait lekutan hondakinen bilketaren gelditzeak arazoa dela aipatu du. Orain, biztanleek bilketa gune kolektiboetan utzi behar dituzte beren hondakinak, eta horrek zailtasunak eragiten ditu adineko jendeentzat, zaurituak direnentzat eta elbarrituentzat. Galdetu du ea Euskal Elkargoak aterabiderik aurreikusten duen, bizilagunen arteko elkartasunaz aparte, egoera hobetzeko.

Auzapezak azpimarratu du Jean-Pierre Gogny jaunak aipatu Harizkazuia bideko eta beste zenbait lekuetako hondakinen bilketaren arazoa behin eta berriz jakinari zaiola Euskal Elkargoari. Azaldu du Harizkazuia auzokoen arazoa Euskal Elkargoaren kamioien izariari lotua dela, besteak beste segurtasun arrazoiengatik ezin baitituzte zenbait zubi iragan.

Jean-Pierre Gogny jaunak azpimarratu du Euskal Elkargoak ez duela horretaz inolako oharrik egin.

Auzapezak zuzendu du herriak hainbat ohar egin dizkiola elkargoari baina hark ez duela erantzunik eman. Ados da, ikuspegiz aldatu behar dela, bereziki bilketa guneetatik urrun bizi diren adineko jendeentzat, zailtasun handiak baitituzte bilketa gune horietara joateko.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak oroitarazi du Errobi eremuko bilkura batean Kanboko hondakinen bilketaren arazoa aipatu zela. Proposatua izan denean lurralde eremuko zenbait hautetsik elkarrizketetan parte hartzea, bere buru aurkeztu zuela Kanbo ordezkatzeko. Baina, partehartzea ukatu diotela erran du, Auzapezak ez omen zuelako Kanboko nehor nahi elkarrizketa horietan.

Auzapezak Argitxu Hiriart-Urruty anderearen erranak arbuiatu ditu, zehaztuz ez duela sekula Kanboko ordezkarien parte hartzerik ukatu. Ez duena onartu, ordea, da herriko zerbitzuak erabiltzaileen solaskide izatea herriarena ez den eskumen batentzat eta beti kritikatu duen bilketa sistema bati buruz.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du elkarrizketa beharrezkoa dela arazoan konpontzeko. Bere ustez, kexu izatea elkarrizketetan parte hartu gabe ez da gauzak aitzinarazteko bidea.

Auzapezak erantzun dio gaia behin eta berriz aipatu dela, eta ez Harizkazuia bidearentzat bakarrik. Aipatu du, beste leku batzuk, Haurtzain adibide, kasu antzekoan direla eta bertako biztanleek petizio bat ere egin dutela.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du, Errobi eremuaren bidez, Euskal Elkargoak nahi zuela herri bakoitzak herriko ordezkari bat izenda zezan erabiltzaileekin lotura egiteko. Baina Kanboko herriko etxeak ez du onartu, eta hondakinen zentralizazioaren eta kamioien pasatzearen kontra agertu dela. Arazo bera zenbait auzotan zegoen, eta jarrera bera berretsi dute. Gogorarazi du ere abenduaren 21eko bilkura bat, Maitena Curutchet anderearekin, Kanboko biztanle guziei irekia baina jende guti hurbildu zela. Bilkura hartan, herriko etxeak uko egin dio bitartekari izateari, argudiatuz Euskal Elkargoak bere erabakiak asumitu behar zituela eta ez Kanboko hautetsiek. Uste du ez ulertzea hortik heldu dela.

Auzapezak azaldu du herriko etxea usu lehen lerroan egoten dela kexu diren biztanleen aurrean, nahiz eta hondakinen bilketa ez den bere eskumenekoa. Ez du nahi herria gai horri buruzko biztanleen kexuak biltzeko bitartekaria izatea. Baieztatu du kexuen biltzeko herriko ordezkari bat izendatzearen kontra agertu dela. Haatik, Hiriart-Urruty andereak erran dituen beste gauzak funtsik gabeak direla erran du.

Jean-Pierre Gogny jaunak zehaztu du bere galderak konponbide bat atzematea zuela helburu, ez polemika piztea.

Philippe Bacardatz jauna harritia da hondakinen ekoizpenaz aurkeztu diren zenbakiekin, bereziki edukiontzi berdeek hori kolorekoek baino bost aldiz gehiago pisatzen dutenaren inguruan. Galdetu du ea emaitzak desberdinak izanen ote ziren, pisua zenbatzeko ordez bolumena kontuan hartu balitz.

Vincent Goytino jaunak azaldu du edukiontzi horikoak usu plastikoak direla, arinagoak direla edukiontzi berdeetakoak baino, eta horrek esplika lezake bien arteko masa alde handia.

Philippe Bacardatz jaunak azpimarratu du hondakindegia bolumena duela neurtzen, ez pisua, eta horrek zenbaki okerrak eragin ditzakeela. Horrek adieraziko luke igortzen diren hondakinen bosten bat bakarrik edukiontzi horikoak direla, eta bere pertzepzioak ez du horrekin bat egiten

Argitxu Hiriart-Urruty andereak Errobi lurralde eremuan izan den elkarrizketa bat ekarri du gogora, Kanboko etxebizitzaren oinako bereizketari buruz. Galdetu du ea bilkurarik edo proposamenik izan den, besteak beste konpostatze kolektiborako ekintzak.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du konpostatze kolektiboko ekimena borondatezkoa zela. Euskal Elkargoak behar ziren tresnak eskura ezarri behar zituen, baina biztanleek berenganatu behar zituzten. Aipatu du etxebizitza kolektiboko eraikin batean bereiztearen enbaxadore bat deitu zutela, baina ez daki geroztik zer atera den.

Vincent Goytino jaunak jakitera eman du Kanbo erdiguneko etxebizitza kolektibo batean bizi den batek eskaera bat egin duela hondakin berdeen utzi ahal izateko. Baina, badirudi halako zerbait ezartzea konplikatu dela bere etxebizitzaren kokapenarengatik, non zaila baitzen dispositibo egoki bat ezartzea.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak hondakinen izaeraz galdetu du.

Vincent Goytino jaunak zehaztu du konpostagailu batean isurtzeko hondakinez ari dela (janari hondakinak, barazki azalak...).

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea norbait sartu ote den pertsona horrekin harremanean.

Vincent Goytino jaunak pertsonarekin solastu dela. Haren eskaera zen hondakin berdeen uzteko aterabide bat atzematea, baina zaila zen karrika horretan konpostagailua bat ezartzea. Beraz, proposatu dio bere errentatzaileari galdegitea ez ote dagoen aukerarik jabegoaren barnean konpostagailu bat ezartzeko.

Auzapezak azaldu du pertsona batek instalazio bat eskatzen duenean, egingarria izan daitekeela baldin eta bere jabegoan ezartzea onartzen badu. Baina jabekidetzaren kasuan, non bizilagun bat baino gehiago baden, konplexua izan daiteke. Gehienetan partzuergoko ordezkariak Biltzar Nagusi baten kariatara jabe guzuen iritzia jaso behar izaten du. Azpimarratu du gai hori jadanik aipatua izan dela.

Eliane Aizpuru andereak azpimarratu du jabekidetzaren kasuan, konpostagailua ezartzeko betoizko zola baten egitea usu arazoa izan daitekeela. Horrek gastuak eragiten ditu, biltzar

nagusia antolatu behar da, eta prozesua etsigarria izan daitekeenez, urraspidea ez da burura joaten.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak oroitarazi du lurralde eremuan egin zen aurkezpen batean, diapositiba batean erakusten zutela biztanleek beren hondakinak ekartzen zituztela. Uste du kolektibitateak duela bere gain hartu behar hondakien kantitatea murriztea, ekintza eta aterabide egokiak sustatuz.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du hondakinen bilketa eta horien murrizteko ekimenak ezartzea Euskal Elkargoaren eskumenak direla

022-A – 2025eko urtarrilaren 1etik goiti aplikagarriak izanen diren etxaldeetako mozkinen merkaturako leku eskubideen salneurriak.

Aizpuru andereak Sebastien bihotzez eskertu du herriarentzat lan egin duen hamaika urte t'erdiegatik. Bere kalitate profesionalak, zehaztasuna, teknikotasuna, pazientzia eta disponibilitatea goraiatu ditu, azpimarratuz kalitate horiek bereziki garrantzitsuak direla, bereziki lan teknikoa egin behar denean. Erran du plazera izan dela harekin lan egitea eta hamar egun baizik ez zaizkiola gelditzen joan baino lehen harekin solasteko.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

HONELA FINKATU DITU 2025eko urtarrilaren 1etik goiti aplikagarriak izanen diren etxaldeetako mozkinen merkaturako leku eskubideen salneurriak.

- **Ekitaldi-merkatua:**

3 metroko mahaia: 16 €/egun, metro gehigarria: 2,60 €

- **Ostiral goizetako merkatua:**

2 metroko mahaia: 7,00 €

3 metroko mahaia: 7,50 €

Metro gehigarria: 2,20 €

%20ko beherapena urteko harpidetza hartzen duten merkatariarentzat eta %10eko beherapena ekainetik urri erdira harpidetza hartzen duten merkatari-ofizialeentzat.

- **Gaueko merkatuak:**

2 metroko mahaia: 7,00 €

3 metroko mahaia: 7,50 €

Metro gehigarria: 2,20 €

022-B – 2025eko urtarrilaren 1 etiko aplikagarriak izanen diren Bixkotx Bestako erakusketarientzako salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, euskal bixkotxaren bestako erakusketariak eremu publikoa okupatzeko sariak, 2025eko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- - Arte ofizialeak oihal pean:
 - egun bat = 85 €
 - bi egun = 125 €
- - Arte ofizialeak beren materialarekin:
 - egun bat = 52 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
 - bi egun = 84 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
- - Ekoizleak oihal pean:
 - egun bat = 165 €
 - bi egun = 205 €
- - Ekoizle jaki saltzaileak:
 - egun bat = 52 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
 - bi egun = 84 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
- - Sukaldaritza elkarteak: 52 € bi egunentzako
- - Elektrizitate gastuak:
 - egun bat = 18 €
 - bi egun = 24 €
- - Euskal bixkotxaren bestarentzako karrusela: 80 €ko saria
- - Ahate arrantza eta beste: 50 €ko saria
- - Ura behar duten karruselak (adibidez igerilekua): 20 €ko gainsaria

022-C – 2025eko urtarrilaren 1etik goiti aplikagarriak izanen diren «Arnagako ikuskizunen» salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatuta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, Arnagarako "Ikuskizun", 2025eko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- Prezio osoa: 18.00 €tik 25 €ra
- Prezio berezia (12-18 urte artekoak, ikasleak, langabetuak, elbarrituak): 13 €tik 15 €ra
- Urririk 12 urtetik beheiti.

022-D – 2025eko urtarrilaren 1etik goiti aplikagarriak izanen diren gelen eta materialaren alokatzeko salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, gela eta material alokairuen prezioak, 2025eko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

Kiroldegia

Kanboko elkarteen urrikako ekitaldiak	160 € + 150 € tapizak
Kanboko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	330 € + 150 € tapizak
Kanbotik kanpoko elkarteen urrikako ekitaldiak	720 € + 150 € tapizak
Kanbotik kanpoko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	1 500 € + 150 € tapizak
Pribatua	2 100 € + 150 € tapizak

Ezker pareta

Kanboko elkarteen urrikako ekitaldiak	80 €
Kanboko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	160 €
Kanbotik kanpoko elkarteen urrikako ekitaldiak	550 €
Kanbotik kanpoko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	1 300 €
Pribatua	1 400 €

Ezker paretaren eranskina eta dojoa

Kanboko elkarteen urrikako ekitaldiak	35 €
Kanboko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	85 €
Kanbotik kanpoko elkarteen urrikako ekitaldiak	100 €
Kanbotik kanpoko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	170 €
Pribatua	230 €

Zabalki

Kanboko elkarteak	100 €
Kanboko biztanleak	300 €
Kanbotik kanpokoak	650 €
Gordailua	500 €

Errugbiko egoitza

Kanboko elkarteak	100 €
Kanboko biztanleak	180 €
Kanbotik kanpokoak	300 €
Gordailua	500 €

Animazio aretoa

Irabazi asmorik gabeko animazioa	Urririk (500 €ko gordailua)
<u>Irabazi asmoko animazioa</u>	
• Kanboko elkarteak	65 € (500 €ko gordailua)
• Kanbotik kanpoko elkarteak	250 € (500 €ko gordailua)

Bilkura gela: Elorrimendi – Larrazkena – Zerbitzu gunea

Kanboko elkarteak	urririk
Kanbotik kanpoko elkarteak	32 €/ordu
Jabe elkartea eta pribatuak	32 €/ordu
Gordailua	500 €

Kirol gela barneko materialaren alokatzea

Mahai eta aulki - Kanboko elkarteak	urririk
Mahaiak eta aulkiak – Kanbotik kanpoko elkarteak	140 € mahaiak – 140 € aulkiak
Berogailua - Kanboko elkarteak	urririk + erregaia
Berogailua - Kanbotik kanpoko elkarteak	140 € berogailua + erregaia
Oholtza - Kanboko elkarteak	170 €
Gordailua	200 €

Kirol gelatik kanpoko materialaren alokatzea

Mahai eta aulki - Kanboko elkarteak	urririk
Berogailua - Kanboko elkarteak	urririk + erregaia
Oholtza - Kanboko elkarteak	170 €
Gordailua	500 €

Herriko gelen alokatzea lizentziadunik ez duten eta federazio bati atxikiak ez diren kirol eta kultur elkarteei

Kanboko elkarteak	8 €/ordu
Kanbotik kanpoko elkarteak	18 €/ordu

Beharrezkoa honako dokumentuen ematea:

- Elkartearen estatutuak (suprefeturako egiaztagiria)
- Elkartearen segurantzak
- Irakaslearen diploma
- Prezioen taula
- Diru eta jarduera txostena.

022-E – 2025eko urtarrilaren 1etik goiti aplikagarriak izanen diren autokarabana gunearen salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

HONELA FINKATU DU 2025eko urtarrilaren 1etik goiti aplikagarriak izanen diren autokarabana gunearen salneurriak.

Aparkatzea:

24 orduko tarteka (1)..... 15.00 €

(1) Barne diren zerbitzuak: ura – hustea – elektrizitatea – wifi
Egonaldi zerga barne: 0,86 €

Aparkatzeaz gainerako zerbitzuak:

Ura 4.00 €

Hustea urririk

Autokarabanen diru-itzultze eskaerak:

Ez ohiko egoeretan, honako kasuetan onar daiteke lehenago joaten direnei dirua itzultzea:

- Osasun arrazoiak;
- Familia arrazoiak;
- Aginteek erabaki neurriak (etxeratze agindua...)
- Terma egoitzak egonaldia deusezten duenean.

Egiaztagiriak aurkeztu beharko dira. Ez da beste arrazoirik onartuko.

023 – Programa Baimen eta Ordainketa Kredituen (PB/OK - AP/CP) eguneratzea.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, honako azaldu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2311-3 artikularen arabera, aurrekontu zuzkiduretako inbertsio gastutzat har daitezkeela Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK).

M57 kontularitza nomenklaturaren arabera, programa baimenen prozedurak (PB) onar daitezke inbertsio gastuentzat.

Programa baimenak (PB) dira inbertsioen finantzatzeko egiten diren gastuen muga gorena. Indarrean diraute, iraupen mugarik gabe, indargabetu artean eta aldatuak izan daitezke.

PB bakoitzari dagozkion Ordainketa Kredituak kontularitza ekitaldian zehar banatuko dira. Ordainketa Kredituak (OK) dira PB baten baitan eta urtean zehar egiten diren gastuen estaltzeko muga gorena.

Herri Biltzarrak, 2024ko apirilaren 15eko 20240415-015 erabakiz onartu zuela 7PB-OK berriren sortzea eta onartzen zuen 17 PB-OK guztietako OKak 2024tik 2026arteko ekitaldietan banatzea,

Gaur egun PBen aitzinamenduari buruzko bilana kontuan izanik, eta 2024ko ekitaldian gauzatu direnak,

Honakoa proposatu du:

- **2022-002** zenbakidun PB/OK "elizako organoa" 409,82 €z emendatzea hots PBa 450 080,70 €ra igotzea 449 670,88 €ren ordez. 409,82 €ko zenbatekoa DM1-2024an, 23 kapituluan agertzen da. 2024an gauzaturako 60 803,26 €en eta hasierako aurrekontua bozkatu zeneko 60 393,44 €ko OKren arteko diferentzia da.
- **2023-008** "zelai sintetikoa" PBa 2025era luzatzea eta OK banaketa horren arabera aldatzea, gaur egun gauzatua dena eta 2024ko abenduaren 31ra arte gauzatzeko gelditzen dena kontuan hartuz. Ondorioz, 1 907 032 € transferituko dira 2024ko OKetatik 2025eko OKetara. Bestalde, PB/OKen orekan eraginik ez duten kontularitza mugimenduak egin dira DM1-2024ean, 23. eta 20. kapituluen artean.

Herri Biltzarrari proposatu dio programa baimenen (PB) eta ordainketa kredituen (OK) banaketa berria onartzea, erantsiak diren taulen arabera:

Aurkezpena entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU programa baimenen eta ordainketa kredituen banaketa berria, baita PB/OK baten emendatzea erantsitako taularen arabera.

AGINDU DIO Auzapezari honako erabakiak egikaritzeko behar diren izapide guzien egitea.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Zelai sintetikoa:

Philippe Bacardatz jaunak zelai sintetikoaren proiektua gibelatzeko arrazoiak ezagutzeko eskaera egin du.

Auzapezak erantzun dio zelai sintetikoaren proiektua diru arrazoiengatik gibelatu dela. Hastapenean, 1 900 000 € aurreikusi ziren errugbiaren eta futbolaren aldeko inbertsio horrentzako, baina jakinarazi diote frantses estatuak ez duela diru-laguntzarik emanen 2024an. Ondorioz, proiektua gibelatzea eta menturaz berriz pentsatzea erabaki du, inbertsio proiektua ondoko kontu ekitaldian egiteko. Zehaztu du lan handiak egin behar direla, besteak beste lur-mugitzeak zelaiak aldeberean futbola eta errugbiarentzako balioko badu. Beste proiektuei dagokienez, pilotarentzako club-house-a eta ezker paretaren berritzea, aurreikusi ziren aurrekontuak ez dira aldatuko. Halere, berretsi du herriak ez duela diru-arriskurik hartuko, bereziki diru-laguntzarik ez bada. Herriak ez du inolaz ere proiektu bat osoki auto-finantzaturako departamendu eta Frantziako estatu mailan murrizketak egiten badituzte.

Laranjategia - Zalditegiak:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak Arnagako eta Laranjategiko proiektuak aipatu ditu, eta suposatzen du proiektuen artean hautuak egin beharko direla.

Auzapezak baieztatu du bi proiektuen artean lehentasunak ezarri beharko direla. Halere, zehaztu du bi proiektuentzako diru-laguntzak jadanik onartuak direla. Aipatu du obra kudeatzaile talde batek ikerketa lanak abiatuak dituela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zenbateko diru-laguntza izanen den proiektuarentzat, jakinez 2 780 000 € aipatu zirela. Jakin nahi luke zenbateko horren zein portzentaje beteko duten diru-laguntzek, hots %50, %70 eta abar.

Auzapezak oraingoz ez du zenbaki zehatzik emateko, baina berretsi du diru-laguntza kopuru onak eskuratuko direla. Diru-laguntzak daudeno, finantzazio plana errespetatzen deno, eta herriari gehiegizko ekarpenik eskatzen ez zaion bitartean, proiektuak aitzina segituko du. Berretsi du herria ez dela inbertsio arriskutsuetan sartuko.

Zelai sintetikoa - KI txostena:

Jean-Paul Alaman jauna berriz itzuli da zelai sintetikoaren gaira. Azpimarratu du badirudiela futbol taldeak arrangurak badituela, eta gaur biltzarrera hurbildu direla haren bulegoko bi kide. Gehitu du 1,9 milioi euroko ekipamendua aipaturik ere, futbol elkartearen beharrak zelai sintetiko baten inguruan ez direla solasgaietan aipatu. Iradoki du ikerketa edo gogoeta sakonago bat egin litekeela taldearen arrangurei erantzuteko, eta haren bozeramale bezala aurkeztu da. Aitortu du gaia ez duela ongi menperatzen, baina uste du herri mailako elkarrizketa bat baliagarria izan litekeela halako inbertsio bati buruzko erabakiak hartu baino lehen.

Auzapezak erantzun dio garrantzitsua dela gaiez mintzatzeko jakinean izan behar dela, eta dolu zaio zelai sintetikoaren sustatzaileekin ezin elkartu izana orain aurkeztu duen dokumentuarekin. Oroitarazi du arazo nagusia lur funtsena dela. Izan ere, futbol taldeak aurkeztu duen proiektua gauzatzeko terrenoa Kanboko sindikatu-elkartearena da, eta proiektuaren sustatzaileek erran zutena ez bezala, sindikatu-elkarteko Lehendakariak baztertu du terreno hura uztea.

Azkenik, proiektu sustatzaile horien grina aitortu eta goraiatu du. Alabaina, oroitarazi du herriarentzat garrantzitsua dela arauak errespetatzea eta aurretiko kontrol izapideak egitea, zeren zerbait legez kanpo eginez gero Eskualdeko Kontuen Ganbera ohartuko baita.

Amaia Beyrie andereak adierazi du diru publikoaren erabilerari buruzko kezka badirela, bereziki kasik bi milioi euroko zelai sintetikoaren inbertsioarentzat. Oroitarazi du proiektu horrek jada zalantzak altxatu dituela bere izari eta homologazioari buruz. Bere ustez, eman diren elementu gehigarriak ikusirik ere, proiektuaren bidezko tasunari buruzko dudak badira. Galdetu ez ote den diru-laguntza goaitatzeko denbora hori baliatu behar proiektua eta haren diseinua berriz pentsatzeko, azken erabakia hartu aitzin.

Auzapezak gauzen argitzeko adierazi du 1,9 milioi euroko zelai sintetikoaren proiektua eta futbol eta errugbi zelaien finantzazioa eta kudeaketa bi gauza desberdin direla. Zehaztu du 1,9 milioi euroko inbertsioa Michel Labèguerie gunerako dela, bigarren zelaia futbolak eta errugbiak erabili ahal izan dezaten. Azaldu du oraingo zelaia ez dela kirolak baldintza onetan praktikatzeko egokia, eta osoki berrikusi behar izan dela bi kirolen praktikatu ahal izateko.

Auzapezak azpimarratu du helburua futbola eta errugbia leku bakarren elkartzea dela. Momentuz ez da aipatzen futbola bakarrik lekuz aldatzea Pedro Halty-ko sintetiko batera. Aurrekontuari dagokionez, zehaztu du 1,9 milioi euroak programa baimena direla eta ez engaiamendu irmoa. Erabakia 2025ean hartuko da, eskuragarri izanen diren kredituen eta formatuaren arabera.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak talde tipiko bilkura bat aipatu du, non aipatu baitzen lanbide lizeo batek eskualdeko diru-laguntzak ukan zitzakeela zelai sintetikoa finantzatzeko.

Auzapezak zehaztu du orduan egiazki erran zuela, eskualdeko diru-laguntza baten ukateko zelai sintetiko batentzat lizeoa izan behar zela herriaren lurralde eremuan. Gaur egun lizeorik ez da eta ondorioz eskualdeak ez du proiektua diruztatuko.

Peio Etxeleku jaunak azpimarratu du zelai sintetikoari buruzko dokumentua, saio hasieran banatu dena, osoa eta argia dela, eta badirudiela herriko eskola eta kolegioekin hitzartze bat izan dela. Aipatu du zelaiaren egiteko aurreikusten diren zenbatekoak herriak aurreikusi zituenak baino aise apalagoak direla, eta aterabide juridikoak atzeman dituztela lur-sail pribatuetan ekipamendu publikoak ezartzeko. Uste du proiektuaren gibelatzea gauza ona dela, eta aurkeztu diren elementu finantzazkoak, juridikoak eta teknikoak sinesgarriak direla.

Auzapezak ohartarazten du ez dutela denek dokumentua irakurtzeko denbora bera ukan, eta denbora hartuko duela txostena aztertzeko proiektua egokia den ala ez ebazteko.

Eskola-jolasgunean natura txertatzea:

Jean-Paul Alaman jaunak AHIak eskola-jolasgunearentzako onartu 50 000 €ko aurreikuspenaren eta lan horien egiteko 360 000 €ko inbertsioaren arteko aldea izan du aipagai. Galdetu du alde horren arrazoia zein den eta ea zenbateko hori programa berezi baten baitan baloratu denetz.

Auzapezak erantzun dio eskola-jolasgunerako 360 000 €ko balorazioak elementu osagarriak biltzen dituela, besteak beste aterpeari buruzko gogoeta, eta horrek esplikatzeko duela hastapenean AHIak aurreikusi zituen 50 000 €ekiko aldea.

Bizikleta plana:

Jean-Paul Alaman jaunak auzapeza eskertu du eta bizikleta planari buruzko galdera egin du. Jadanik onartuak diren 100 000 €etatik 50 000 € erabili direla, galdetu zu zenbateko hori ikerketak, diagnostikoak edo aurreikuspenak egiteko erabili ote den, eta zer iguriki daitekeen etorkizunerako.

Vincent Goytino jaunak azaldu du bizikleta plana Kanbon txirrindularien zirkulazioa hobetzeko egina dela, non malda handirik ez den salbu behereko eta gaineko plazen artean. Helburua da bizikleten joan etorriak segurtatzea, seinaletika baten bidez, hala nola bizikletek errepide batzuk hartzeko eskubidea dutela adierazteko, edo bizikletaren erabilpena sustatzeko ekimenentzako. Aurtengo aurrekontua 50 000 €koa da, eta heldu den urtean zenbateko bera izanen da. Jakin behar da, lanek beranta pixka bat hartu dutela bereziki margotze lanak egin behar zituen enpresaren aldetik. Plana kasik prest da, eta errepideak eta animazioak jadanik zehaztuak dira

Peio Etxeleku jaunak ohartarazi du seinaletikaz ari garela.

Vincent Goytino jaunak baietz erantzun dio, seinaletika dela nagusiki, baita zenbait ekipamendu ere, hala nola bizikletak pausatzeko rack-ak.

Auzapezak zehaztu du bizikleta plana ez datzala soilik proiektuak asmatzean, baina elementu konkretuak egiten direla.

Vincent Goytino jaunak bizikleta plana aurkeztu du, zeinak helburutzat baitu bizikleta zirkulazioa Kanboko ardatz nagusietan erraztea, bereziki ordokian eta Behereko Plazako pilota plazaraino. Zirkulazio dentsitate altuko eremuak izan ditu bereziki hizpide, hala nola

eskolak, kirol egiturak, non seinaletika erabiliko den bizikleten ikusgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak segurtasun hesirik ez dagoela ohartarazi du.

Vincent Goytino jaunak azaldu du onena bizikletentzako bide bereziak ukatea litzatekeela, baina Ceremaren arauak horretarako gutxieneko zabalera duten errepideak eskatzen dituzte. Baina Kanbon bideak ez dira aski zabalak. Ondorioz, hautatu den aterabidea da autoekin partekaturiko bideetan seinaletika ezartzea, errei bereziak egitea baino, garestiago izanen baitzen.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak arrangura adierazi du lurreko seinaletika egiteko 100 000 €ei buruz, zeren bere ustez seinaletika horrek ez baitu segurtasun nahikoa eskaintzen. Azpimarratu du arriskutsua litzatekeela istripuak edo zaurituak gertatzea goaitatzea neurri eraginkorragoak hartu aitzin.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du lurreko seinaletika ez dela 100 000 €ra heltzen, baina gehienez 60 000 €ra. Prezio horretan seinaletika desberdina egiten da bideen egoeraren arabera, egoera onean diren errepideetan erresinarekin eta egoera ez hain onean direnetan margoarekin. Bizikleten aparkatzeko rack direlakoan prezioa oraindik kalkulatzeko dago.

Philippe Bacardatz jaunak kezka adierazi du bide kaltetuetan margoa erabiltzeari buruz. Ohartarazi du, bereziki kaltetua den zola batean margoa biziki lerrakorra izan daitekeela euri denean, eta hori segurtasun arazoa dela txirrindularientzat.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak erantzun dio zorigaitzez erresina nola margoa lerrakorrak direla, eta ondorioz bi aukera horiek antzeko arriskuak dituztela txirrindularientzat euri denean.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak adierazi du Hazparnen, bideak zabaldu gabe, herriko etxeak karririk norabide bakarrean ezartzea erabaki duela eta bidearen zati bat bizikletentzat erreserbatuz. Aterabide bat izan liteke txirrindularien segurtasuna hobetzeko eta errepideak zabaldu behar izan gabe.

Auzapezak erantzun du Hazparnen edo Donapaleun egin den norabide bakarreko karriken hautua ez dela baitezpada Kanbon egiten ahal, herriek ez baitute topografia bera. Zehaztu du bizikleta plan horren onarpenak gogoeta sakonagoa merezi duela osoki garatua eta ezarri izan aitzin. Azpimarratu du ekintza hertsagarri horren ongi eramateko ikerketa bat egin beharko dela.

Vincent Goytino jaunaren ustez, bizikletentzako lurreko seinaletika etapa garrantzitsua da, baina hastapena besterik ez da. Bere iritziz, bizikletentzako ibilbideak jende gehiagok erabiliko dituztenean, orduan antolamendu gehiago eta seguruagoak aurreikusten ahalko dira etorkizunean.

Peio Etxeleku jaunak azpimarratzen du garrantzitsua dela ekipamendu egokiak ezartzea jendeak bizikletaz ibiltzera akuilatzeke. Bere ustez, halakorik egiten ez bada, jendea ez da motibatuko bizikletaz ibiltzeko.

Auzapezak Goytino jauna eskertu du kausa hori etengabe zerrendakideen eta auzapeza beraren aurrean defendatzeagatik. Aitortzen dizkio Goytino jaunari ahalegin handiak mugimendu hori abiarazteko eta akuilatzen du funtsik gabeko kritikei kasu ez egitera. Auzapezak baieztatzen du hastapena baizik ez dela eta espero duela datozen urteetan

mugimendu hori azkartuko dela. Ohartarazi du Kanbon egin denarekin ez dutela lotsatzerik izari bereko beste herrietan egin dutenaren ondoan.

Amaia Beyrie andereak deitoratzen du oharrak modu ezkorrean hartu baitituzte. Azpimarratzen du gero eta herri biltzarraren saio gutxiago badela, eta zehaztu du beretzako eta bere kideentzako proiektu horiek berriak direla. Informazioak aitzinatu ahala deskubritzen dituzte, orain erakutsi den maparekin bezala, eta horrek gaizki ulertzeak eta frustrazioak eragin ditzakeela.

Esplikatu du egiten dituzten proposamenak batzuetan kritika gisa hartuak direla, baina egiazki ekarpen eraikitzaileak egiten dituztela. Oroitarazi du bere taldean badirela txirrindulariak, eta ikuspuntu eta ideiak partekatzeko gogoia duten pertsonak. Herri Biltzarra antolatzeke moldearekin ez da ados, zeren bere ustez ez baitute ekarpenik egiteko aukerarik. Zehaztu du entzuten duena ez direla kritikak, baizik eta galderak eta gogoeta kolektiboak. Uste du beren egitekoa dela elkarrekin gogoetatzea.

Auzapezaren aburuz, ez dira kritikak baina proposamen soilak. Halere, Goytino jaunaren ekintza defendatu nahi du, nahiz eta onartzen duen jende batzuek, berak barne, Goytino jaunaren sentsibilitate bera ez dutela gai horri buruz. Azpimarratu ditu Bizikleta Plana eta beste ingurumen aitzinamendu zenbait sustatzeko ahaleginak.

Ezker paretari:

Philippe Bacardatz jaunak ezker paretari buruzko galdera egin du, bereziki obra-batzordean aurkeztu den proiektua.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du 2024ko otsailaren 21eko obra-batzordean, 18:30ean, jadanik aurkeztu zirela elementu horiek.

Jean-Noël Magis jaunak adierazi du dokumentua behin eta berriz aurkeztu dela, bereziki irisgarritasun-batzordean eta obra-batzordean non obren edukiaz luze eta zabal mintzatu diren.

Philippe Bacardatz jaunak oroitarazi du eraberritze proiektuan teilatuak, pitzadurak, aldagelak eta harmailak ere sartzen zirela. Azpimarratu du deialdia plazaratu-eta proiektu konkretuago bat garatu dela, eta dagoeneko aurkezteko moduan dela.

Jean-Noël Magis jaunak berretsi du obren eduki zehatza obra-batzordean aurkeztu zela. Gehitu du geroztik prozesuak bere ibilbideari eusten diola deialdiarekin. Zehaztu du deialdiaren ondotik oharrak jasotzea posible dela, eta hori deialdi batean gauza normala dela.

024 – Aurrekontu nagusia: 1. erabaki aldatzailea.

ERABAKIA:

Kontuan izanik, 2024ko kontularitza ekitaldiaren aurrekontu nagusiko funtzionamendu eta inbertsio ataletako artikulua batzuetan aurreikusi diren kredituak txikiegiak direla, Aizpuru andereak, diru gaietarako auzapezordea, Herri Biltzarrari honako 1. erabaki aldagarria onartzea eskatu dio:

1 - FUNTZIONAMENDU SARTZEAK

Kapitulu a	kontularitz a artikulua		DM
70	70311	Hilerrietako kontzesioak	6 030,00
	70321	Bide publikoetan aparkatzeko eta alokatzeko eskubieak	660,64
	7062	Kultur izaerako zerbitzuen zerga bereziak	37 000,00
	7078	Bestelako salgaiak (museoko saltokia besteak beste)	8 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 70. kapitulua	51 690,64
73	73111	Tokiko zerga zuzenak	88 723,00
	73118	Bestelako ekarpen zuzenak	2 089,00
	73123	Oinordetza eskubideen eta lur funtsen iragarki zergaren gaineko zerga gehigarria	-135 000,00
	73133	Etxe hondakinen eta antzekoen bilketa zerga	-1 300,00
	73141	Bukaerako elektrizitate kontsumoaren gaineko zerga	6 279,00
	73154	Leku eskubideak	-2 000,00
	731721	Egonaldi zerga	-110 000,00
	7318	Bestelakoak (autokarabana gunean aparkatzea besteak beste)	-2 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 73. kapitulua	-153 209,00
74	74111	FZO (Finantzazio Zuzkidura Orokorra)	653,00
	741121	DSR	11 479,00
	744	FCTVA (N-2ko funtzionamendu gastuen gainekoa)	-1 850,52
	74718	Frantses estatua / Beste	11 200,00
	7473	Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren diru-laguntzak	3 018,00
	74751	Euskal Elkargoaren ekarpena	2 000,00
	747888	Bestelako erakundeen parte hartzea	30 499,49
	74833	Frantses estatua – Lur funtsen zergaren konpentsazioak	63,48
	7485	Agiri segurtatuentzako zuzkidura (pasaporteak)	3 899,00
	74888	FaLK esleipenak eta parte hartzeak / gizarte ekintza	-11 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 74. kapitulua	49 961,45
75	752	Errenta higiezinak	5 117,68
	7588	Ez ohiko kudeaketa etekinak/ekintzak	22 254,23
		DM Ataleko zenbateko orokorra 75. kapitulua	27 371,91
76	7688	Bestelako finantza etekinak	12 715,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 76. kapitulua	12 715,00
		DM OROTARA	-11 470,00

2 - FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Kapitulu a	kontularitz a artikulua	Azalpena	DM
011	60612	Energia -elektrizitatea	50 000,00
	60628	Bestelako hornikuntza ez biltegitatuak	-7 000,00
	6068	Bestelako erosgaiak (Arnagako saltokia)	12 000,00

	61351	Higigarrien alokatzea - ibilgailuak	-10 000,00
	61558	Bestelako ondasun higigarrien mantenua	-10 000,00
	6156	Mantenua	10 000,00
	617	Ikerketak eta bilaketak	15 000,00
	6188	Bestelako gastuak	5 000,00
	6227	Egintza eta auzibide gastuak	8 000,00
	6231	Iragarpenak eta txertatzeak	-30 000,00
	6236-6238	Katalogoak eta inprimakiak (herri aldizkaria) – iragarkiak	30 000,00
	6241	Ondasunen garraioa	5 000,00
	6281	Bazkidetzak, orotariko partehartzeak	5 000,00
	6288	Beste kanpoko zerbitzuak	5 000,00
	63512	Lur funtsen zergak	1 476,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 011. kapitulua	89 476,00
014	739215	Hitzarmen bidezko fiskalitate transferentziak	-110 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 014. kapitulua	-110 000,00
65	65131	Bekak	1 324,00
	657358	Emandako diru-laguntzak (Txakurrak + Biltzar)	330,00
	65888	Bestelako ez ohiko kargak/kudeaketa ekintzak	3 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 65. kapitulua	4 654,00
66	66112	Berantago ordaintzeko diren interesak	3 900,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 66. kapitulua	3 900,00
67	673	Urteko deuseztatuak (aitzineko kontu ekitaldietakoak)	500,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 67. kapitulua	500,00
		DM OROTARA	-11 470,00

3 - INBERTSIO SARTZEAK

Kapitulu a	kontularitz a artikulua	Azalpena	DM
10	10222	FCTVA	-12 231,74
	10226	Antolamendu zerga	-21 349,38
		DM Ataleko zenbateko orokorra 10. kapitulua	-33 581,12
13	1311	Frantses estatuaren diru-laguntza	-15 907,50
			-12 712,00
			-17 802,00
	1323	Departamenduaren diru-laguntza transferitu ezinak	-341 190,00
	13251	Departamenduaren diru-laguntza transferitu ezinak	-133 456,00
1338	Bestelako ekipamendu funts amortizagarriak	39 163,91	
		DM Ataleko zenbateko orokorra 13. kapitulua	-481 903,59
	1641	Maileguak	-1 300 000,00
16	165	Eskuratutako gordailuak	1 219,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 16. kapitulua	-1 298 781,00
27	2745	006 – Itzuli beharreko aurrerakina (Artzamendi XBHAS)	-52 555,56
		DM Ataleko zenbateko orokorra 27. kapitulua	-52 555,56

		DM OROTARA	-1 866 821,27
4 - INBERTSIO GASTUAK			
Kapitulu a	kontularitz a artikulua	Azalpena	DM
16	165	Emandako gordailuak	637,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 16. kapitulua	637,00
20	2031	Ikerketa gastuak	10 896,00
			1 400,00
			5 318,00
			1 345,37
	2033	Txertatze gastuak	864,00
			785,83
		DM Ataleko zenbateko orokorra 20. kapitulua	20 609,20
204	20442	Pertsona pribatuentzako diru-laguntzak - eraikinak eta instalazioak	39 163,91
		DM Ataleko zenbateko orokorra 204. kapitulua	39 163,91
23	2312	Terrenoen antolatzea	23 208,00
	2313	Eraikuntzak	-11 760,00
			-23 208,00
			-1 907 032,00
			-1 400,00
			409,82
	2315	Instalazio, material eta tresneria teknikoak	-6 103,83
		DM Ataleko zenbateko orokorra 23. kapitulua	-1 927 231,38
		DM OROTARA	-1 866 821,27

Aurkezpena entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU, gorago azaldua den erabaki aldagarria.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak proposatu du horrelako galderak saio hastapenean lantzea, zeren eta gai hauek hamaiketan eztabaidatzea jasangaitza bilakatu baita.

Eliane Aizpuru andereak argitu nahi izan du ez dela sekulan izan bilkura 23ak arte irauteko eskaerarik. Azaldu du saioan zehar galderak metatzen joan direlako azkenean saioa hain berant luzatu dela.

Philippe Bacardatz jaunak azpimarratu du erregularki egiten duela elektrizitateari buruzko galdera, zeren oraindik ez baitu lortzen kontsumitu diren bolumenak kalkulatzeko, eta ondorioz

fakturatukoak ezta ere. Jakin nahi luke ea %25eko emendatzea bolumenari dagokionez ala salneurrien emendatzeari.

Vincent Goytino jaunak oroitarazi du zaila dela kontsumo zehatzak ezagutzea eta zailtasunak izan zituela fakturatutako zenbatekoen berrosatzeko. Halere, TE64ri esker, kontsumoen segipena egiteko tresna batzuk ezarri dira, besteak beste Linky kontagailuak. Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak formakuntza bat antolatu zuen, ez bakarrik Kanboko langileentzat, baina Errobi eremukoentzat. Herriko langile batek segitu du formakuntza hori eta 2024ko kontsumoen txostena egin behar du. Espero du datorren biltzarrerako zenbakiak ukanen ditugula, nahiz eta ez duen uste 2023rekiko erkaketa egitea posible izanen denik. 2024 abiatze puntua izanen da, eta 2025ean alderaketa egiten ahalko da.

Philippe Bacardatz jaunak Vincent Goytino eskertu du kontsumo bolumenen eskuratzeko aukeragatik. Azpimarratu du garrantzitsua dela behatzea, isolamenduan egiten diren inbertsioei begira ikusteko ea kontsumoak egiazki jaisten diren.

Eliane Aizpuru andereak oroitarazi du, finantza batzordeak gehiengoz aldeko iritzia eman zuela eta ahanzi zitzaiola hori lehenago zehaztea.

025 – Inbertsio gastuen kredituak aurretiaz irekitzea.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

2024 kontu ekitaldian herriak hainbat inbertsio programa abiatu ditu, eta horietatik eratorriak dira 2025 hasierako kontratu eta finantza engaiamenduak. Alta, 2025 hastapeneko finantza engaiamenduak ezin dira gauzatu, kontularitza ikuspegitik, inbertsio kredituak 2025eko hasierako aurrekontuan ireki ez diren bitartean.

Baldintza horietan, eta Frantziako LKKOko L.1612-1 artikuluaaren arabera, lurralde erakunde baten aurrekontua dagokion urteko urtarrilaren 1a baino lehen onartu ez denean lurralde erakunde horretako agintek, organo erabakitzaileak baimendurik eta aurrekontua onartu arte, honakoak egin ditzake:

- funtzionamendu ataleko diru sarrerak onartzea eta gastuak egitea, likidatzea edo agintzea aitzineko urteko aurrekontuaren mugak gainditu gabe.

- aurrekontuaren bozka baino lehen epemugara heltzen ziren zorraren kapitala ordaintzeko gastuak agintzea.

- inbertsio gastuak gauzatzea, likidatzea eta agintzea, aitzineko urtean ireki ziren kredituen laurdena gainditu gabe, zorraren ordaintzeko kredituak salbuetsita.

Bestalde, LKKOko L. 5217-10-9 artikulua honakoa dio: «Inbertsio atalak edo funtzionamendu atalak programa baimenak eta ordainketa kredituak (PB/OK) dituztenean, edo engaiamendu baimenak eta ordainketa kredituak (EB/OK) agintariak aurrekontuan onartu artean edo aurrekontua adosten ez bada ordaindu arte, aitzineko ekitaldian ireki diren baimenetako inbertsio eta funtzionamendu gastuak likidatu eta agindu ditzake, kapitulu bakoitzeko ordainketa kredituen mugak gainditu gabe, hots aitzineko urtean ireki ziren baimenen heren bateraino. Kreditu horiek aurrekontua onartzean edo ordaintzean txertatuko dira. Kontulariak baldintza horietan jaulki diren aginduak ordaindu ditzake. ».

Aizpuru andereak ondorengo bi eranskinetan oroitarazten du:

Programa baimenetatik kanpoko inbertsio gastuei dagokienez (1. eranskina):

- Aurrekontuko kapitulu eta artikuluko bakoitzeko, Aurrekontu Nagusiaren 2024ko Aurrekontuan aurreikusi diren inbertsio gastuen zenbatekoa eta eskuragarri den inbertsio aurrekontuko zatia (%25), 2025eko hasierako aurrekontua bozkatu arte.

Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (2. eranskina).

- Aurrekontuko kapitulu eta artikuluko bakoitzeko, 2024erako aurreikusi diren ordainketa kredituen zenbatekoak eta eskuragarri diren kredituen herena, 2025eko Hasierako aurrekontua bozkatu arte.

Aizpuru anderearen azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU 2024ko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontuaren bozkar egin bitartean, 2025eko kontu ekitaldiko inbertsio gastuen kredituak aurretiaz irekitzea.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari agiri oro izenpetzeko eta honako erabakiaren egikaritzeko izapide guztien egiteko.

Abstentziora jo dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

– Bestelako gaiak:

Auzapezak solasgaiaren azken puntuaren sarrera egin du. Adierazi du eite bereko hiru galdera badaudela, Nahi Dugun Herria taldeak epeetan eta arauen arabera helaraziak.

Lehen galdera: errango al diguzu nork ezarri duen salaketa hiru pertsonen kontra, zeinak atxilotuak, eskuburdinez lotuak eramanak izan baitira eta beren etxebizitza miatua izan baita 2024ko urriaren 2ko goizeko 6etan?

Auzapezak erantzun du: “Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2121-29 artikulua arabera, lurralde erakundeek eskumena dute herriaren administrazioari buruzko gaiez eztabaidatzeko. Zuzenbide gaiak zuzenbide aginteen eskumenekoak dira eta ezin dira herri biltzarrean eztabaidatu. Zigor kodearen 11. artikulua arabera, inkestaren eta instrukzioaren sekretuak edonori debekatzen dio, hautetsiei ere, artean epaitua izan ez den auzi bati buruzko elementuak publikoki agertzea edo eztabaidatzea. Ondorioz, ezin dira salaketa ezarri duten pertsonen identitatea, atxiloketa eta miaketa baldintzak eta justizia egintzetan agertzen diren elementuak edo arrazoiak eman. Herri biltzarrean halako eztabaida batek legezko printzipio hori urratuko luke eta partehartzaileek legezko zigorrak ukan litzakete.”

Bigarren galdera: honako galdera ere egiten dugu: Jean-Noël Magis jauna zergatik agertzen da auzitegirako konbokazioan? Zer kalte jasan du?

Auzapezaren erantzuna: “Zuzenbideko akta batean pertsona bat aipatzen denean, auzitegiaren gaia da. Ez dagokie ez herri biltzarrari ez haren kideei gai horri buruzko interpretazioak edo epaiketak egitea”.

Hirugarren galdera:

Azkenik, herriko etxeak 11 000 € eskatzen ditu parketaren berriz egiteko. Nork egin du aurrekontua eta nola jakin parketaren hondatzea 2024ko apirilaren 10eko arratsekoaren ondorioa dela?

Auzapezaren erantzuna: “Parketaren berriz egiteari buruzko galderari dagokionez, aurrekontua epaiketarako txostenean txertatu da. Hemen dauden entzuleei ohartarazi nahi diet sarketa horrekin deus ikustekorik ez duten hirugarren gisa badirudi auzian aipatuko gaiei buruzko elementuak ezagutzen dituzuela. Eta marka ezazue zuen agendetan: epaiketa 2025eko otsailaren 11an izanen da, 13:45ean. Berresten dut herri biltzarrean eztabaida eraikitzaileak eta errespetuzkoak bermatzeko dudan engaiamendua, lege esparruaren barnean. Bidean diren justizia prozedurei buruzko gaiei inkestaren eta instrukzioaren sekretua dagokie, eta ezin dute herri biltzarrean eztabaidatuak izan. Jarrera honek legea eta alde guzien eskubideak zaintzea du helburu”.

Auzapezak biltzarkideak eskertu ditu eta saioa hetsi.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 23:20ean hetsi du.

Joana LACARRA
Saioko idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko Auzapeza